

Arrasate Press

ARRASATE / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a / 719. zenbakia

UDALATX ZULATZEAREN KONTRA/ Kanpainaren bigarren zatia

Udalatx zulatzearen kontrako sinadurak batzen hasiko dira oraingo asteburuan

UBANE MADERA

Datozen bi asteburuetan batuko ditu sinadurak Udalatx Bizirik taldeak. Udalatxeko proiektuaren kontrako esku-orriak ere bidali dizkie herritarrei. Era berean, herritarrei dei egin die mendiaren zulaketa salatzen duen kartela leku ikusgarrietan ipin dezaten.

Udalatx zulatzearen aurkako 15 taldeak bi asteburutan ibiliko dira sinadurak batzen: oraingoan eta hurrengoan. Sei lekutan batuko dituzte sinadurok: Eroski hipermerkatuan, Musakolan (Ziorla taberna inguruan), Arbolapetan, Seberren, Kontzezinon (Iamai tabernaren parean) eta Arimazubin. Jende gehien dabilen ordue-tan ipiniko dituzte mahaiak. Horrez gainera, lantegietara ere joko dute sinadura bila eta beste bide batzuk ere erabiliko dituzte.



Irudiotako moduko kartelak bidali dizkiete herritarrei, ahalik eta leku ikusgarrietan ipintzeko.

SINADUREN HELBURUA

Asmoa da gero sinadurak Udalatxera eramatea. Haien bitartez, berriz, zera eskatzen dute: Udalatx egiten dabilzan prospekzio lanak (tunela) berehala gertzea; harrobiaren gaineko hausnarketak bidera dezaten eska diezaioala Udalak dagokien erakundeari (Diputazioari, Jaur-lar-

ritzari...); harrobiak egiteko gune aproposen gaineko plan bat eta horrez gainera, abiarazita dauden proiektu handien gaineko eztabaida egitea ere eskatzen dute, euren ustez, haien ondorioz dira-eta harrobiak horren beharrezko gaur egun.

165 FUTBOL-ZELAIK ADINAKO ZABALERA

Etkez etxe banatu duten esku-orriari, berriz, honakoak salatu dituzte: harrobia egitea bideragarria den edo ez jakiteko proiektua bukatzen dutenean, Udalatx azpian hiru galeria izango direla, 350.000 m²-koa bakoitza; "165 fut-

bol-zelaiak adinako zabalera izango du". Zulaketa horretan Arrasateko Udalak eta beste erakunde batzuek duten erantzukizuna ere salatu du Udalatx Bizirik taldeak: "Alkate jauna: zertarako balio du Arrasateko Plan Orokorrak esatea Udalatxek 'interes ekologiko

eta paisajistiko handia' duela eta babes berezia zor zaiola?"

Bestalde, Jaurlaritzako Meatzte Sailaren erantzukizuna ere salatu dute, hark eman diolako onespina Udalatx zulatzeko proiektuari.

Era berean eta Udalatx mendi enblematiko eta berezia dela nabarmentzeaz gainera, herritarren ardura ere aipatzen dute: "Arrasateko herritarrok: zuen esku dago Udalatx egin nahi duen hondamendia geldiaraztea".

KARTELAK IPINTZEKO DEIA

Horren harira, esku-orriarekin batera, Udalatx Bizirik taldeak herritarrei bidali die Udalatx kontrako proiektua salatzen duen kartela. Hain zuzen ere, herritarrei eskatu gura diete ahalik eta leku gehienetan ipintzea kartel haiek; batez ere merkatariei dei berezia egin gura diete, kartelak erakuslehoetan-eta ipintzeko.

15 ELKARTE, TALDE ETA SINDIKATU

15 talde osatzen dute Udalatx zulatzearen kontrako taldea: AHT Gelditu! Elkarlana, Ekologistak Martxan, gaztetxea, Besaide Mendizale Elkarte, Besaide Espeleologia Taldea, CCOO, LAB, ESK, Ahots Kooperatibista, Segi, Ezker Batua, Aralar, Zutik, Batasuna eta Herri Anitza.

Jon Agirre eta Josu Uribetxeberria aske uzteko eskatu dute berriro

U.M.

Jon Agirre eta Josu Uribetxeberria presoak gaixo daude, larri. Horregatik haien askatasuna eskatu zuten haien lagunek eta senideek. Agirreri ebakuntza bi egin diote eta Uribetxeberriari laster egingo diote bat.

Jon Agirreri hirugarren ebakuntza egingo diote laster. Hipertentsio arteriala, diabetesa, hiperurizemia eta fibrilazio artikularrak ditu, besteak beste. Horrek guztiak

eskatzen du "gertuko jarraipena egitea orain eta espetxean ezin zaio ziurtatu horrelakorik". Nabarmendu zuten, baita ere, Jon Agirre orain dela hamar urte bete zituela zigorraren hiru laurdenak.

URIBETXEBERRIA, MINBIZIAREKIN

Josu Uribetxeberriari dagokionez, jakinarazi zuten orain dela pare bat hilabete diagnostikatu ziotela minbizia ezkerreko giltzurrunean. Orain, Donostia Ospitalean dago eta datorren eguenean ebakuntza egingo diote: "Bada-

kigu bere egoera larri dela eta espetxeak ezin duela eskaini behar beste arreta horrelako kasuetan. Orain arte euskal preso politiko-en artean egon diren minbizi kasu guztietan lortu da presoak kalera-zea. Legeak garbi esaten du gaixo larriak ezin direla espetxean egon eta guk lege hori betetzea besterik ez dugu eskatzen".

Hala, bi presoen etxeratzea eskatzeaz gainera, aurrerantzean antolatutako eta bultzatutako dituzten ekintzetan parte hartzera gonbidatu zituzten debagoiendarrak.



Martitzenean egin zuten prentsurrekoa presoen senide eta lagunek.

DEIANE ARRIETA

INGURUMENA / Zerrajerako lurrak garbitzen

Zerrajeran beruna, amiantoa eta merkurioa aurkitu dute

D.A./U.M.

Amiantoaz gainera, merkurioa eta beruna aurkitu du orain IHOBREk Zerrajera inguruan. Hiru sustantzia horietatik amiantoa eta beruna deuseztatzen hasiko dira. Udaleko Ingurumen Saileko zinegotziak lasaitasun mezua helarazi gura die herritarrei.

Teilatuan, amiantoa; garai batean Zerrajerako igerilekuak zeuden lekuan, beruna eta lurpeko uretan, merkurioa. Horixe aurkitu du Jaurlaritzako IHOBE elkarteak. Hala, orain, beruna eta amiantoa deuseztatu egin beharko ditu Udalak. Merkurioa, berriz, dagoenetan utziko dute momentuz, ur haiek erabiltzeko asmorik ez dagoelako.

Udaleko Ingurumen Saileko buru Joseba Ugaldek GOITBri jakinarazitakoaren arabera, Mecanizados Arrasate lantegiaren erakina botatzera enpresa berezi bat etorriko da eta segurtasun neurri handiak hartu beharko ditu.

LASAITASUN MEZUA

Horrenbeste sustantzia kutsakor dituen eremuan etxebizitzak egi-



DEIANE ARRIETA

Mecanizados Arrasate lantegia eraitsi egingo du laster, enpresa espezializatu batek.

ten dabil Udala. Hala, jakinda herritarrek horren gaineko kezka izan dezaketela, Joseba Ugaldek adierazi du behin lan guztiak egin ostean, leku hura garbi baino garbiago utziko dutela: "Herritarrek pentsatu behar du Arrasaten egongo bada kutsatu bari-

ko leku bat Zerrajera izango dela. Izan ere, dagoen kutsadura agertu egin da eta guztia behar den moduan tratatzen gabiltza". Hala, gaineratu zuen leku hura oso ona dela etxebizitzak egiteko: "Erdialdean dago eta bestelako etxebizitzak ere baditu inguruan".

Aparkalekua gordeko du Udalak, azoka plazakoendako

U.M.

Azoka plazako saltzaileek zenbait kezka azaldu diote Udalari, besteak beste, zama-keta lanak egitearekin eta aparkalekuekin lotuta. Udalak egoera aztertu eta erabaki du aparkaleku batzuk gordetzea.

Azoka inguruan egiten dabiltzan urbanizazio lanek kalte egin diote azokari. Hala uste dute hango saltzaileek. Besteak beste, lanen

ondorioz, zama-lanak egiteko arazoak izaten dituzte eurek eta erosleek, berriz, aparkatzeko arazoak. Hala, kezka azaldu diote Udalari.

GUNEA MUGATU

Egoera aztertu ostean, Udalak erabaki du Correos aurrean zama-lanak egiteko lekua gordeko dutela, goizero, domeketan ezik. Eta Txoko tabernaren inguruan, eguazten eta egubakoitz goizetarako lekua gordeko dutela. Halaber, Okendo, Azoka eta Mondragones kaleeta-

ko lanak bukatu ostean, Ferixalekua aparkaleku moduan erabiltzen segitzea aztertzen dabiltzala gaineratu du Udalak.

BAIMENEN LUZAPENA

Horrez gainera, saltzaileei jakinarazi die saltoki fincoen erabilera baimena 2010eko abenduaren 31n bukatuko dela eta saltoki bereziena aurtengo abendu bukaeran. Edozelan ere, kontraktorik ezean, baimenak beste bost urtez luzatuko dituztela ere aurreratu die.

LABUR

Arrasateko bake epaile izateko interesa duenak zabalik du izena emateko epea

Herriko bake epailea eta haren ordezkoa aukeratu behar ditu Udalak. Hain zuzen ere, interesa dutenek bi aste barru inguru baino lehen eman behar dute izena. Horretarako Udaletzeko alkatetzara jo beharko dute.

Bake epaile edo haren ordezkotza izateko badira bete beharreko zenbait baldintza edo betebeharrak. Informazio hori guztiori lortzea behar izanez gero, udaletzeko idazkaritzara jo daiteke.

Odol-emaileek hitzordua dute datorren astean hiru egunez, anbulatorioan

Oraingo astean Arrasaten izan dira Arabako Odol Bankukoak eta datorren astean ere hementxe izango direla iragarri dute: ekainaren 14an, 15ean eta 16an, 16:30etik 20:00etara, anbulatorioan.

Urtean hiru bider etortzen dira Arrasatera, aldi bakoitzean pare bat astean. Anbulatorioan zein lantegietan ibiltzen dira odola ateratzen, baita Biteri egoitzan eta ikastetxetan ere. Iaz, esaterako, 1.170 ateraldi egin zituzten ikastetxe eta enpresetan. Hala, datuen arabera, Fagor Garagartzako langileak izan ziren eskuzabalenak. Biteri egoitzan, berriz, 247 laguni dei egin zuten iaz eta horietatik 217k eman zuten odola.

Elkartasun Eguneko zozketako zenbaki irabazlea honakoa da: 1.181

Oso pozik daude Elkartasun Eguneko antolatzaileak ekimenak lortutako arrakastarekin. Emandako datuen arabera, besteak beste, Ibai Arte merkataritza elkartearen tonbolaren bitartez, 3.000 euro batu dituzte Indiako Ankur proiekturako; ikastetxetean batutako dirua kontuan hartuta, 5.300 euro inguru bidaliko ditu Harreman elkar-teak Indiara. Horren harira, eskerrak eman gura die bai Ibai Arterri baita Elkartasun Egunean parte hartu duten herritar guztiei ere.

Bestalde, Asturiasko hotel baterako bost eguneko egonaldia zozkatu zuten. Jakinarazi digute 1.181 zenbakiak irabazi duela. San Juanetarako agertu ezean, 1.310 zenbakiari emango diote saria.

Gorakada handia enpresak laguntzeko programak

U.M.

Enpresak laguntzeko programak %112 eskaera gehiago izan ditu azken edizioan, bosgarrenean. Horren arabera, 75.459 euro banatu ditu, 27 lanpostu egonkor sortu dituen 22 enpresen artean.

2004ko ekitaldian sortutako enpresei zuzendutako laguntzak banatu ditu Udalak. Hain zuzen ere, aurreko edizioan baino 46.806 euro gehiago banatu ditu. Gauzak horrela zera adierazi dute: "Esan daiteke bost ediziotan sen-

dotzen joan dela programa hori, eta erreferente dela ekintzaile berriendako. Momentu honetan esan genezake kasu gehienetan enpresa onuradunen soslalia haur-xe dela: enpresa txikiak (bat eta lau langile bitartekoak), zerbitzu arlokoak, ekintzaile gazteak eta emakumezkoendako postuak sortzen dituztenak".

Bestalde, iragarri dute aurki argitaratuko dutela 2005eko dela. Interesa duenak Udaleko enplegu zerbitzura jo dezake, enplegu@arrasate-mondragon.net helbidean galdetu edo bestela, 943 79 09 00 telefonoan.

BITTORI

ERRETEGIA

Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

UGARAN

jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 / 675 70 57 35 ARRASATE

ELKARRIZKETA

PATXI PEREZ/'ALMA INSUMISA' LIBURUAREN IDAZLEA

"Sistemak biolentziaren monopolioa beregan hartzen duela salatu gura dut"

UBANE MADERA

Joan den astean aurkeztu zuen Patxi Perez erreteriarak *Alma Insumisa* liburua, Monterronen. Nobela moduan idatzita dagoen arren, gai asko ukitzen ditu liburuak, baina oro har, desobediencia zibilaren defentsa du ardatz:


Inposaketen kontra borroka egitea zilegi da, betiere biolentziarik erabiltzen ez bada. Hori da zure teoria?

Ez da zehatza. Zera defendatzen dut: gizartea aldatzeko borrokan erabiltzen diren medioek izan behar dute lortu nahi diren emaitzen erabateko isla. Hau da, koherenteak izan behar dugu zer egiten dugun eta zer lortu nahi dugun; esaterako, bizitza errespetatzea gura baduzu, zeuk ere errespetatu beharko duzu bizitza. Baina horrek ez du esan gura biolentziari uko egin behar zaionik. Batzuetan biolentzia erabiltzea beharrezkoa da defentsarako, egoeraren arabera. Nire iritziz, *biolentziarik eza*-ren kontzeptua nahasgarria da. Horregatik asmatu dut berba berri bat: *bioborroka*.

Baina biolentziak biolentzia dakarrela diozu...

Uste dut biolentzia ez dela txarra eta ezta ere ona. Alderdi bi ditu: bata naturala, eraso baten aurrean egin beharreko defentsa. Eta besteak mendekuarekin edo gorroto adierazpenekin zerikusia du. Kasu horretan, biolentzia hori patologikoa da; eta zorritzarek, gure gizartean halako asko dago. Gauzak horrela, pentsatzen dut *biolento-éz biolento* manikeismo horretatik irten egin behar dugula. Hala, horren zapaltzailea den gizarte hau aldatzen ahalegintzen denean norbaiti gerta dakioke noizbait biolentzia erabili behar izatea. Argi izan behar da biolentziak samina eragiten duela. Eta horren ondorioz, ahalegindu behar dugu txikitzen haren ondorioak. Biolentzia erabiltzeko beharra duenak beti ipini behar du zalantzan zergatik erabiltzen duen biolentzia. Eta argi izan behar du zentzua eta lehenago utzi biolentzia, hobe dela. Izan ere, biolentzia behin eta berriro erabiliz gero, sufrimendua sortzen du, besteengana eta norberaren kontra etortzen den sufrimendua.

Hala, salatu gura dut sistemak berak biolentziaren monopolioa beregan hartzen duela. Dio biolentzia ez dugula erabili behar eta sistema etengabe dabil bere burua berrarmatzen, bere burua babesten du gorputz errepresiboen bitartez. Hori kontraesana da eta arriskutsua; biolentziaren monopolioak gizarteari oso ondorio txarrak ekar diezazkioke.



IKER BARANDIARAN

"Desobediencia zibilak erakutsi du arrakasta lortzeko moduko oso arma erabilgarria dela"

Sistema demokratikoetan hori gertatzen da?

Sistema demokratikoetan, eskubideak defendatzeko erabili beharreko biolentzia ahalik eta txikiena izan beharko litzateke. Baina batzuetan, beharrezkoa da, esate baterako: lokal batean ostikada bat emanez sartzea, lokal hori gartzetxe izateko. Eta hori ekintza biolentzia da. Ekintza biolentzia izan daiteke, baita ere, polizia bati aurre egitea hark indarrez eraman nahi zaituenean. Hori gutxieneko biolentzia mota da. Beste kontu bat da biolentziaren erabilera zalantzan ipintzen ez denean. Ez bada argi ikusten biolentzia ez erabiltzen ahalegindu behar dela, baina batzuetan beharrezkoa dela erabiltzea, orduan biolentziaren espiral batean eror daiteke. Hori da gure gizartean gertatzen dena,

"Liburuak oso gai sakonak lantzen ditu, baina irakurterraza da, dibertigarria"

bai gobernuen bai talde armatuen kasuan ere. Ez dute biolentzia zalantzan ipintzen; helburu batzuk lortu nahi dituzte, koherenteak ez diren bideak erabiltzen. *Helburuak lortzeko edozer da zilegi* printzipioa erabiltzen dute. Eta nire nobelan, printzipio hori atzera botatzen dut, nire ustez kalte handiak eragin dituelako. Esaterako, intsumisioaren esperientziak erakusten digu borroka koherentearen bitartez, ahalik eta biolentzia gutxien erabiltzen, gizartea eraldatzeko bidean helburu asko lor daitezkeela, gizartearen babesa ere lor daitezkeela. Desobediencia zibilak erakutsi du arrakasta lortzeko oso arma erabilgarria dela: hinduak Hego Afrikan euren eskubideen alde borrokatu zirenean, Txekoslovakian *Pragako Udaberria* gertatu zenean...



Arrasateko euskalgintza



Espainieraz ikastearen eragina, bizitza guztian igarri

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Euskararekin izandako esperientziekin jarraituz, Lua gozoki dendako Asun Kortabarriarekin izan gara oraingo honetan. Besteak beste, kontatu digu dendari moduan ahalegintzen dela bezeroei lehen berba euskaraz esaten.

"Orain dela 50 urte jaiotzen nintzen, Oñatin. Gurasoak oñatiarrak eta euskaldunak ditut eta etxean beti euskaraz egin dugu.

Bizitzako lehen urteak Oñatin bizi izan ditut. Han ere, euskaraz egin nuen bizitza, 4 urtera arte, hain zuzen ere, eskolara joan arte. La Milagrosa moja-eskolara joan nintzen eta sasoi hartan eskolak espainieraz ziren. Dena dela, lehen esandako moduan, etxean guraso eta anai-arrebekin den-dena euskaraz egiten genuen.

OÑATITIK ARETXABALETARA

Gaztetan, berriz, 18-20 urterekin euskaltegira joan nintzen euskara batua ikastera. Bizpahiru urte egin nituen.

20 urtera arte Oñatin bizi izan nintzen eta ondoren Aretxabaletara joan nintzen bizi izatera. Han familia osatu dut eta nire seme-alabekin euskaraz hitz egiten jarraitzen dut; senarrarekin, berriz, Kantabriakoa denez, espainieraz egiten dugu.

Bigarren hizkuntza espainiera dut, nire garaietan ikasketak guztiak espainieraz zirelako.

IKASKETEN ERAGINA

Dendari bezala, berriz, esan beharra dut urte asko daramadala komertzioan, eta euskaraz egiten didaten guztiei euskaraz jarraitzen diet elkarrizketa; espainieraz egiten badidate, berriz, erdaraz.

Dena dela, dendara etortzen den jendearekin lehen hitza euskaraz egiten saiatzen naiz. Baina batzuetan, bigarren hizkuntzan erantzuteko joera ere badaukat.

Bestalde, esan daiteke hitz egiteko orduan bai euskaraz eta espainieraz maila berbera daukadala. Idazteko eta irakurtzeko orduan, berriz, espainieraz egiten dut errazago, ikasketak espainieraz egin ditudanez erraztasun handiagoa daukat eta espainieraz.

Euskara nire hizkuntza da eta izango da. Baina nik ez dut inoiz inor hizkuntza bat ikastera behartuko, ez dela behartu behar uste dudalako. Nire ustez euskara aukera bat da hemengoentzat eta kanpokoentzat. Norberaren interesen arabera ikasi beharko du".

Badakitzu udaltzain eta ertzainei euskeraz eitteko eskubidie daukatzule?

Zure eskubide hau ez dala beteten?

EZ IXILDU!!!
ALDARRIKATU ETA SALATU

www.behatokia.org edo deitu

HIZKUNTZ ESKUBIDEEN
BEHATOKIA

EUSKARAREN TELEFONOA 902 194 332

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 10**
Zabala, Zarugalde 42. 943 77 16 30
- ZAPATUA, 11**
Azkoaga, Ferrerías 1 943 79 15 15
- DOMEKA, 12**
Azkoaga, Iturriotz 17. 943 79 79 99
- ASTELEHENA, 13**
Corcuera, M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- MARTITZENA, 14**
Irizar, Erguin 11 943 79 12 39
- EGUAZTENA, 15**
Amezua, Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUENA, 16**
Español, Araba etorb. 14 943 79 18 65
- EGUBAKOITZA, 17**
Ruiz, Maala 31 943 79 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIE TXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Iguatorialdea. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11

- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57

- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astehenetik egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa

- Arrasate**
Astehenetik egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espzialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11

- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44

- ERTZAINZAK**
Arrasate. 943 79 71 99

- SUHILTAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088

- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
943 79 78 44

- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10

- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57

- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monteiron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|---|
| San Juan parrokia | San Andres eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
19:00 (elebiduna) |
| Domeka
11:00 meza nagusia (euskaraz) | Domeka
10:00 (euskaraz) |
| 12:30 (elebiduna) | 12:30 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza | Santa Teresa eliza |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | Zapatua
20:00 San Isidron (euskaraz) |
| Domeka
09:00 (euskaraz) | Domeka
12:30 (gaztelaniaz) |
| 10:00 (elebiduna) | Santa Marinako eliza |
| 12:00 (elebiduna) | Jaiegun bezpera eta zapatua |
| 19:00 (elebiduna) | 19:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia | Domeka
11:00 (elebiduna) |
| Zapatua
19:00 (elebiduna) | |
| Domeka
11:30 (elebiduna) | |

OHARRAK

KONTZERTUA GAZTETXEAN
Bihar, zapatua, Arrasateko Des-Kontrol eta Valentziako Social Kombate taldeek kontzertua egingo dute gaztetxean, 22:30ean.

KONTZERTUA GURE LEKUN
Gaur, egubakoitza, Arrasateko Los Otros musika taldeak rock latindar doinuak joko ditu Gure Leku tabernan, 23:00etan. Doan izango da.

'LARUNBLAI', SEBER ALTUBEN
Bihar, zapatua, Txatxilipurdik *Larunblai* ekimena egingo du Seber Altuben. 11:30etik 13:30era, eskulan eta ile-apaindegi tailerrak egingo dituzte. Edozein ume eta gaztetxok esku hartu ahal izango du.

ABAROAKOAK GIRONARA
Irailaren 10etik 24ra bitartean, Abaroako lagunak Susana-Malgratera (Girona) joango dira. Interesatuak 325 euro ordaindu beharko dituzte. Izenematea ekainaren 13tik 24ra arte izango da.

ABAROAKOAK KANTABRIARA
Abaroako lagunak Kantabriara txangoa egingo dute ekainaren 22an. Interesatuak eguaztenean, hilaren 15ean, eman beharko dute izena. Zozketa hilaren 20an egingo dute.

AEDren AGENDA

SAN JUANETAN, DRAGOI JANEAN LAN EGITEKO DEIALDIA
AED elkarteak deialdia egin du herritarrek ekainaren 24an, Dragoi Janean, lan egin dezaten. Interesatuak jo dezatela AEDra.

URBANOEN ORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10 URTEARRASATEN

Irudia aldatu zuen Arrasateko Udalak

Orain dela 10 urte, Udalak sinbolo berria estreinatu zuen. Logotipo berriak zaharrean agertzen ziren elementuak ditu, baina garbiago eta modu modernoagoan. Donostiako Network irudi eta komunikazio enpresak egin zuen irudia, eta hiru miloi pezetako aurrekontua izan zuen.



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Parau"



Txakurra geldi-geldi eta adi geratu oilgorra edo beste ehizagairen bat somatzen duenean. — Txakurra neure aurrian parau jatan.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA	8 °C
Domeka, 5	
MAXIMOA	33 °C
Eguena, 2	
ASTEKO EURIA (l/m²)	0,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztjena, 1	24 °C	11 °C	- l/m²
Eguena, 2	33 °C	9 °C	- l/m²
Egubakoitza, 3	20 °C	16 °C	0,4 l/m²
Zapatua, 4	19 °C	14 °C	- l/m²
Domeka, 5	24 °C	8 °C	- l/m²
Astelehena, 6	24 °C	10 °C	0,3 l/m²
Martitzena, 7	24 °C	12 °C	- l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



AGURNE JULDAIN

NUBiko lagunak, Aste Santuan, Tindufeko kanpalekuan egindako argazkia.

Mendebaldeko Sahararen egoera berbagai, besteak beste, 'Asteko Gainbegiratu'-n

Marokoko segurtasun indarren jazarpena etengabe dabil areagotzen Mendebaldeko Saharan, eta gerra hots zurrumurruek ere zabaltzen hasi dira. Hori dela eta, lurralde okupatueta bizi den egoeran sakontzeko asmotan, SEAD (Saharar Errepublikako Arabiar Demokratikoko Lagunak) elkarreko kide Jesus Garairekin izan gara. Eta egoeraren beste ikuspuntu bat ere jaso dugu, *Berria* egunkariako Kristina Berasain kazetariaren eskutik. Kristinak bere begiez ikusi zuen sahara-

rrak zelan bizi diren, baina Marokoko poliziak behartuta, etxera itzuli behar izan du, eta ezin izan da lurralde okupatuetara heldu. Batak zein besteak kontatutakoa, asteburuan entzungai.

SEXOLOGIAREN GELTOKIA

Asteburuko hitzorduan, baina, beste gai batzuk berreskuratuko ditugu. Horien artean, Arrasateko Sexologia Zerbitzuko teknikari Larraitz Arandok 11-12 urtekoen sexualitatearen gainean emandako azalpenak.



ARRASATE IRRATIA

ASTEKO PROGRAMAZIOA

ZAPATUA
10:00 Asteko gainbegiratu: Jesus Garai, SEAD elkarteak kidea; Kristina Berasain, *Berria* egunkariako kazetaria; Larraitz Arando, Arrasateko Sexologia zerbitzuko teknikaria; Marga Garmendia, Arrasateko Udaleko enplegu teknikaria...

DOMEKA
10:00 Asteko gainbegiratu.

ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA
09:00-11:00 IGO AUTOBUSERA!
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landu).
Elkarriketak.
Zozketak, e.a...

11:05 Musika

12:05 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

12:20 Zorion agurren tarrea.
Parte hartzeko: 943 71 17 31.

12:35 Izarren ordua: abesti ezagunak

13:00 Euskadi Irratiko albistegia.

14:00 IGO AUTOBUSERA! (errep.)

17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.

KALEINKESTA/ Nun jarriko zeuke Abaroa erretirauen elkartie?



LUIS SANABRIA
Erretiraue




ARANTZAZU ISAZELAIA
Langillie



EMILIO LAGUNILLA
Erretiraue



JUANITA ALDEKOA
Erretiraue



MIGUEL ANGEL LANA
Erretiraue



BERNARDINO HERRARTE
Erretiraue

Auto bako leku zentriko baten. Horretxegatik, Zerrajeran jartiekin ez nau konforme. Leku onena San Frantzisko da. Bajuen Abaroa jarriko neuke, eta gai nien kultura etxie.

San Frantzisko oso leku ona dala pentsetan dot, baitte Monterron be. Herri erdixen egon biherko leuke. Udalak gehixau ahaleginddu biherko leuke leku txukune topetan.

Oin dala gutxi jakin dot Zerrajerako hirugarren pisuen jarri gure dauela. Erretirauek baju baten egon biher dou, askok zailtasunek daukielako. San Frantziskon jartie idea ona da.

Leku haundixe eta argixe izen biherko leuke. Horrez gain, komeni da zentriko egotie eta jueteko samurre izetie. Monterron izen leike Abaroa elkartie jarteko leku ederra.

Neu San Andresekue naz eta han kalien baiño txarran gauz. Han ez daukou erretiraueendako ezer be. Konforme nau hamengo jubilauekin, ganorazko zeozter eskaketan badaue.

Leku argixe eta haundixe izen biherko leuke, eta leku zentrikuen ipiñi biherko leukie. Horreik kondiziño horreik bete biherko leuke. Monterron izen leike, edo Caja Laboral ondoko etxie.

USTEAKUSTE

Herrigintza

A skotan esan ohi dugu -ni neu, barne- Arrasaten ez dela gauza askorik egiten. Ez behintzat askok uste duten beste edo tradizioz herri honek izan duen izenaren parekorik, Horrez gain, aspaldian asko zabaldu da arrasatearren eta debagoien-darren aisialdia neurri batean Gasteiz aldean egiteko joera. Horren harira, udal agintari batzuk eta hainbat elkarte hasi dira gai horrekin arduratzen. Hortaz, zelanbaiteko ahalegina egiten dabilta herrian ekimenak antolatzen eta herritarrei (eta bestelakoei) gauzak eskaintzen.

Apirilean Musikaldia egin zuten, Erdi Aroko II. Azokak jendetza handia batu zuen herrian, Juanito Artzamendi-aren omenaldia ere oso berezia izan zen... Aurreko asteburua ere itzela izan zen: egitarautik kanpo zeuden beste ekintza batzuek gain, Triatlolia, Adimen urrikoei omenaldia, Elkartasun Eguna eta Zazpina Errugbi Txapelketa batu ziren, besteak beste, egun berdinetan.

Asteburu honetan Mundu- mira jaialdi erraldoia egingo dute, eta San Juanak bidearen bueltan datoz. Dirudienek, aurten Txosna Batzordeak eta Udalak akordio bat egin dute, indarrak batzeko asmotan. Bide onean goazela dirudi!

IKER BARANDIARAN

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ERREPIDEA GURUTZATZEKO ARAZOK San Andres auzoko lagun batzuek guregana jo dute kexa bat helarazteko. Kontatu digutenez, autoak ez dira gelditzen Polmetasa enpresaren ondoko zebra-bidearen parean. "Autoak abiadura azkarrean pasatzen dira, eta gidariek ez digute oinezkoie jaramonik egiten". Udalari eskatu gura diote horri konponbidea emateko, eta "beharrezkoa bada, Muskolan egin zuten moduan, autoen abiadura murrizteko bandak jarri beharko dituzte", azpimarratu dute auzotarrek.

ASTEKODATUA

350.000

METRO KOADROKO GALERIAK EGINGO DITUZTE UDALATXEN

Herriko 15 taldek osatzen duten Udalatx Bizirik plataformak aditzera eman duenez, Udalatx azpian hiru galeria egingo dituzte. Euren esanetan, horietako galeria bakoitzak 350.000 metro koadro izango ditu. Plataformak proiektua salatu du.

HERRITARRENBERBAK/ Asier Zubizarreta



Munduaren azkena

Liburu-dendako apalean erreparatu nion liburuari. Azalak munduaren azkena iragartzen zuen letra larriz. Jainkoaren izenean! Hara, Biblia santua konputagailuz aztertu eta gero, konputagailuz ojo, eta betiere numerologia eta kabalaren lege ezkutukoaren arabera, 2006. urtean kokatzen zuen autoreak munduaren akabera. Liburua hartu eta orriak pasatzeari ekin nion, zurbil, larri... Ostia! Eta gainera 2007an Errealaren bigarren mailara!

Tea, tea, tea, isilik egon hadi, Kasandra, Troyako erregeren alaba! Beno, banindooan Esparta aldera, badaikin, baso erdi batzuk edan, neska politikak ikusi...

Zapatuko egunkarian leitua, maketa bat egin dutela ez dakit zein laborategitako pizinan, eta baietz, Jaizkibelgo itsasertza txikituko duen Pasaiaiko portu berria egin daitekeena dela, faktiblea, bideragarria oso. Maketa

probatzeko, "olatua" diputatu nagusiak egin ei zituen, bere gomazko paitatxoaz plitiplasta. Eureka!

Telebistan ikusi ditut, bigarren kateko dokumentalean. Hamsterren tankerakoak dira, lemming-ak, erruz ugaltzen dira lau urtean behin

"Janari bila abiatu dira, elikagaiak xahututa kostara heldu diren arte. Itsasoa"

karraskariok Eskandinaviako lur hotzetan, demografi eztanda ziklikoa osatuz. Gose, janari bila abiatu dira, saldoka, bidaia frenetikoak, elikagaiak xahututa kostara heldu diren arte. Itsasoa. Istant batez, elkarri begira

geratu dira hondartzan, kieto. Gero, airea usaindu dute muturra zimurtuz eta erabaki dute baietz, faktiblea dela, bideragarria oso, ozeanoko olatuen bitsaz elikatzea.

Hara, txirrina. Barka iezadazu, irakurle maitea. Atea zabaldu eta lagun bi. Hizketan hasi zait gazteena, ez dakit ze zorakeria esaten, Noeren arka, Jakituraren Arbola, errebista ere luzatu dit begira dezadan... Adios! Armagedon!

Arrasate Press

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera
Xabier Urtzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Natali Martínez
Amaia Mundiñano
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jauriaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala



Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



ZALDIBARKO ANTOLATZAILEAK

Bihar, 15:45ean jokatuko dute Betrayerek eta Saukeluk. Argazkiko Driblingen eta Lasagabasterren arteko finala, 17:00etan.

Zaldibarko areto futbol txapelketako finalaren berri, webgunean

XABIER URTZELAI

Bihar arratsaldean jokatuko dituzte Zaldibarko Txapelketako hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeko norgehiagoka eta finala. Gainera, dagoeneko sarean dago txapelketa horren gaineko webgunea.

zaldibarkofutbitotxapelketa.com helbidean txapelketa horren gaineko berri izango duzue aurrerantzean. Lau hilabete behar izan ditu Ibai Gonzalezek lan hori egiteko, baina dagoeneko sarean da lan horren emaitza: "Lasai egin dugun lana izan da, ez gara presaka ibili, eta zailena lan hori egiten hastea izan da". Webgunean asteroko emaitzak, sailkapen taulak eta antolatzailerik eman gura dituzten berriak jasoko dituzte, eta Ibaik ondo

daki horrek ere lan handia eman go diola. Horrekin batera, webgunean taldeen argazkiak azaltzen dira, baita txapelketa horren gaineko historia ere bai. Eta, taldekideek eskaerak egin gura badituzte, edota proposamen bat bota, bertan izango dute horretarako aukera. Ibaien esanetan, hauxe izan da lan hori egitearen zergatia: "Hiru helburu bete gura genituen. Batetik, txapelketaren gaineko historia erreperatu. Bestetik, aurrerantzean Zaldibarko taldeek astero-astero jaso ahal izango dute txapelketaren gaineko informazioa, ordutegiak, antolatzailerik erabakiak... Eta azkenik, txapelketari bultzada bat emateko balio du".

FINALA, BIHAR

Joan den asteburuan jokatu zituzten finalerdiak, eta Lasagabasterrek eta Driblingek eskuratu

zuten finalerako txartela. Emozio handiko norgehiagokak izan ziren, eta indarrak pare-parean zeudela erakutsi zuten lau ordezkariak. Lehenengo partiduan, Lasagabasterrek 3-2 irabazi zion Saukeluri. Zigorrolakoek izan zuten baloiaren jabetza handiagoa, baina Lasagabaster, zarata handirik atera barik, norgehiagoka txukuna eginda sailkatu zen. Bigarren norgehiagokan sorpresa izan zen, Betrayerek ez zuen-eta jakin hasieran lortutako errentari eustea (4-3).

Denboraldi osoko lana norgehiagoka batek erabakiko du, biharkoak. Akaso, Dribling izango da, aurrez, faborito baina Lasagabasterrekoek ez dute baloi bakarra ere galdutzat ematen. Saukelu eta Betraye lehiatuko dira hirugarren postua lortzeko. Norgehiagoka horrek ere ez du gaztik faltako.

LABUR

Aukeratu dituzte Zaldibarko txapelketako jokalaririk onenak; sari banaketa, bihar

Finala amaitutakoan egingo dituzte sari banaketak, eta besteak beste, denboraldian zehar maila onena erakutsitako jokalaririk sarituko dituzte: Gorka Madinabeitia (Saukelu), David Manso (Dribling), Kepa Aranbarri (AT Celaya), Andoni Txabarri (HLB 108), Jon Barandiaran (La Kuadrilla) eta Antonio Frutos (Betraye). Finalerako jokalaririk onena dago erabakitzeko.

Arrasateko atletak Anoetan izango dira, gutxieneko markak lortzeko helburuarekin

Bihar egingo dituzte Anoetan gutxieneko markak lortzeko probak. 100 metro, 200 metro, 400 metro, 1.500 metro eta pertika jauziko probak egingo dituzte, eta hortxe izango dira Arrasateko atletak. Aipatzekoa, bestalde, joan den astean Lander Errastik Valladoliden egindako jauzia. Lau metroko hesia gainditu zuen, eta bosgarren sailkatu zen.



Laugarren, 4x400 metroko lasterketan

Argazkikoak dira Manu Angues, Martin Davila, Ander Ansoategi eta Remi Diosdado. Joan den astean izan ziren Euskadiko Atletismo Txapelketan, eta Arrasatekoak gutxiatik ez ziren podiumera igo. Zorte txarragoa izan zuten Arrasateko 4x100 lasterketako ordezkariak, lasterketatik kanpo utzi zituzten-eta, testigua ondo ez ematearren. /X.U.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

ELKARRIZKETA

ZIGOR MARTINEZ/BIG BAND TALDEKO ZUZENDARIA

“Saiatzen naiz soloak musikari guztiak egin ditzaten, ez gutxi batzuek”

IKER BARANDIARAN

Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak diskoa kaleratu du. Hamahiru kantutan, jazz, bossa-nova, soinu bandak eta bestelako doinuak batu dituzte. Bandaren zuzendari Zigor Martinezekin berba egin dugu.

Noiz sortu zen Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldea?

2000-2001 ikasturtean. Ni joan den urtean hasi nintzen zuzendari. Iker Olazabal zen zuzendaria, baina Banda zuzentzen hasi zen, eta nik ordezkatu nuen.

Zer da big band bat?

Banda handi bat. AEBetan jazz taldeei banda deitzen diete. 4 edo 5 lagunek osatu beharrean, 20 edo 25 musikari dituztenean izen hori hartzen dute.

Zer da lan zailena halako talde bat zuzentzerakoan?

Musikari guztiak gobernatzea. Asko dira eta horietako asko gazteak dira. Hori baino zailagoa da ikasleak musika klasikotik aldentzeko konbentzitzea. Klasi-koa oso ondo dago oinarri moduan, soinu ona ateratzeko eta abar, baina jazzean beste gauza batzuk daude.

Asko inprobisatzen duzue Big Band-ean?

Ni hasi nintzen arte, ez zekiten inprobisatzea zer zen. Horrez gain, nik inprobisazioko eskolak ematen ditut. Poliki hastea erabaki nuen, baina laster dezente inprobisatu beharko dute. Orain arte, halako pare bat kanturik bakarrik landu ditugu. Saiatzen naiz soloak musikari onenek egin beharrean guztiak egin ditzaten. Eta lortu dugu.

Urtean kontzertu asko egi-ten dituzue?

Ez. Diskoa kaleratu eta gero, apur bat gehiago jotzen hasi gara. Ordura arte, berriz, eskolan eman ditugu kontzertu gehienak. Aurtentz emanaldi batzuk egin ditugu: Elgetan, Bergaran, Vianan...



I.B.

“Diskoaren helburua zen musikariak eurek egiten dutena entzun ahal izatea”

Uztailean Monterronen joko dugu...

Jendeak gustuko du. Ez da ohiko musika, baina erraz sartzen da (soinu bandak...). Horrez gain, horrenbeste musikaririk osatutako talde handiaren kontzertuak ikusgarriak dira.

“Musika klasikoa oso ondo dago oinarri moduan, baina jazzean beste gauza batzuk daude”

Diskoaren helburua taldea promozionatzea zen?

Ez. Asmoa zen musikariak egiten dutena entzun ahal izatea. Elgetako emanaldi grabatu egin genuen eta emaitza txukuna denez, kaleratu egin dugu. Hala ere, promozionatzeko ere balio du.

Monterrongo margolariek erakusketa dute Harresin

I.B.

Gaurtik, egubakoitza, hilaren 20ra arte, Monterrongo margolarien erakusketa ikusgai dago Harresi aretoan. Umeek eta helduek 50 bat lan batu dituzte. Gehienak olioak dira, baina badaude akuarelak eta pastelak ere bai.

Amaia Bengoa bergararra 1993a ezkerer dabil Monterrongo teila-
tupetan margolaritzaren gaineko eskolak ematen. Aurretik ere ibili ziren beste batzuk, eta zaletasun hori tradizio bilakatu da.

“Gaur egun 120 lagun inguru dabilta Monterronen margotzeko oinarriak ikasten eta margolanak egiten”, azaldu zigun Bengoak. Astelehenetik zapatara ematen dituzte eskolak, eta umek eta helduak taldetan banatuta dituzte.

HANDITUZ DOAN ZALETASUNA

Askotan esan ohi dugu Arrasaten gero eta jende gehiagok margotzen duela. Bengoak ere hala uste du: “Urtero 10-12 lagun gehiagok ematen dute izena taldean. Egia da betidanik Bergaran margolaritzaren gaineko tradizio handia egon dela, baina aspaldian Arrasaten ere zaletasuna asko handitu dela uste dut”.

“Ohikoena da herritarrek ize-

na ematea, oinarrikoa ikastea, eta hortik aurrera, margotzen has-
tea. Edozein zalantza badute nigan jotzen dute, eta nik argibideak ematen dizkiet. Askok urte asko daramatzate teila-
tupetako talde honetan. Urteak urtera jarraitzen dute, eta oso giro ona daukagu”.

Horren harira, interesatuek jakin dezatela irailan izaten dela izena emateko aukera. Udaletxera edo Monterronera jo beharko dute horiek.

Are gehiago, margotzea oso gomendagarria dela diosku Bengoak: “Margotzea oso erlaxagarria da, eta guztia ahazteko aukera ematen du. Horrez gain, behin oinarriak ikasita, gura duzun lekuan edo momentuan margotzeko aukera daukazu”.

50 BAT LAN HARRESI ARETOAN

Urtero, ikasturte bukaeran, erakusketa egiten dute Harresi aretoan. Ume batzuek, gura zutenek, lanak erakusgai jarri dituzte. Horrez gain, Bengoak helduei eskatu die lanak erakusketara eramateko. Hortaz, 50 bat lan batu dituzte.


Batutako lanen artean, gehienak olioak dira, baina badaude akuarelak eta pastelak ere bai. Motiboei dagokienez, denetatik aurki dezakegu: paisaiak, natura hilak (bodegoiak), erretratuek, abstrakturen bat...



I.B.

Une batez gainerakoaz ahazteko aukera aproposa ematen du margolaritzak.

Garagardo ona, giro hobea




TXIRRITA

Taberna

Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**Monte
taberna**

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



RICHÍ

Ile-apaindegia

Zabaldu berria!

Zarugalde 5
ARRASATE
Tel.: 943 79 10 06

BOTEPRONTUEN

Alfredo Otalora

XABIER URTZELAI

Argentinako hegoaldien jaixan Alfredo, La Pampan. Medikue izeteko ikesi baeuen be, gaztetatik egin dau komunikabidietan lan, aitte eta ama kazetarixek zien-eta. 30 urtekin etorri zan Euskal Herrire. Ospakizunetan ibillidie, Consultorio Ginecologico zentruet 25 urte egin dauela-ko ingo astien.

Nundik nora sortu zan ondio-kan batera jarraiket an dozu en ekipue?

Dexeusko Unibersidadien elkartu gitzen (Bartzelona), oin dala 30 urte, Fernando Cristobal, Jose Maria Gomez eta Alfredo Otalora, eta ordutik hona batera egin dou lan. Hasieran, Mondragueko Zentro Asistentzialien, eta Consultorio Ginecologico zentruen gero.

70eko hamarkadako azken urtietan hasi zitzen Zentro Asistentzialien lanien.


Horreik izen zien lanien euki doten urte onenak. Lantaldie, Zentro Asistentzialeko lankidiekin geuken ambientie, lan zel an egitten geuen, matronen laguntzie, herritarren amabilidadie...

Sasoi hartan Zentro Asistentzialien aurrerapen haundixek egin zien.

Haundixek, eta oso inportantiek izen zien. Epidurala ibiltten hasi zan Gipuzkoako lelen-go zentruet izen zan, 1977xen izen zan hori. Esteban Mendizabal hasi zan horretan. 1979 eta 1980 urte artien, barriz, laparoskopiak ligadurak egitten hasi gitzen, eta baitte elektrokardiogramiekin lanien be. Eta ikustekue zan zenbat ume jaixoten zien; urte baten 600 ume baiño gehixau euki geuen.

Gero, Zentro Asistentziala itxi, eta aurreko bi lagunekin batera Consultorio Ginecologico sortu zeuen.

Bai. Burokrazia kontuen-gaittik-edo, Zentro Asistentzialekue hartutako hainbat erabakikin konforme ez, eta geure



“Zentro Asistentzialeko lelen-go urtiek izen zien neuretako urte onenak”

aldetik aurrera egittie pentsau geuen. 1980ko junixuen izen zan hori. Mondraguen ipiñi geuen konsultie, eta partuek Vittorixan egitten geuen. Gero Donostiara juen gitzen. Lelengo, Lurraldeko Ospitalien lan egittera, eta gero, Policlinicara.

Consultorio Ginecologico zentruet 25 urte egin dau.

Oingo astien izen da hōri, eta bazkari eder bat egindde ospatu geuen, zapatuen, Arteagan.

Zeuk komentau dozun moduen, oin dala 25 urte gauzak oso argi zeuketzen.

Bai. Hasiera batetik mailla teknikuen alde egin geuen, eta Bartzelonatik jasoten geuen mai-

“Aurrerapenak ezin dau trabarik euki, baiñe kontu haundixekin egin biher da”

lla hori. Horrekin batera, geure irabazixek mugatu egitten geuen, makiñerixa barrixen inbertidu ahal izeteko, eta lantaldie haundiket an juen zan. Gaur egun, 27 lagunek egitten dou bertan lan.

Horrenbeste urte lanien, zenbat ume pasauko zien zeure eskuetatik?

Milleka!!! Eta ez Mondraguekuek bakarrik. Aretxabale-takuek, Eskoriatzakuek, Bergarakuek, Eibarkuek...

Lanien hasi zitzenetik hona, gauzak asko kanbixauko zien.

Izugarri. Geu izen gitzen pioneruek emakumiendako anti-

“50 urtetik aurrerako emakumiek urtero egin biherko leukie mamografixie”

kopzeptibuek lantzen: tronpako ligadurak, pastillak, DIUa ipintten... Baiñe gaur egun horrei ez dutzou horrenbesteko inportantziarik emuten, nahiz eta euki badaukon. Esan gure dotena da gaur egun problema haundi-xauek ikusten doule gizartien. Emakumiek euki biher dau aukerie ama lehenau izeteko, eta ez hori bakarrik. Emakume batek umie eukitten dauenien, bederatzi hillebete egin biher dau umie zainketan. Hori gauza naturala da, eta horren kontra egin dau gizartiek. Enbarazo bat da, umie euki aurreko bederatzi hillebete, eta euki osteko beste bederatzi hillebete. Hori reibin-

diket an dou guk. Bederatzi hillebete baiño gutxiuoko umiek zainketan dauen guarderixa danak zerrau egin biherko geuke. Eta estauek enpresarixuei dirue emun biherko leuskie, ama umiekin egon dain.

Ginekologixie heldute: medikuntzakin batera egin dau aurrera.

Aurrerapen haundixek egon die, batez be reprodukziño kon-tuetan, ume probetak esaten dana. Jose Maria Gomez lankidie Espainiako lelen-go ume probetan jaiotzan parte hartu euen, eta bere esperientzia hori geure egin geuen. Oin, emakume nagusixek umie euki ahal daue, zelula amakin egitten dabitzen aurrerapenak...

Horreik aurrerapenok, baiñe, legien menpe egoten die.

Aurrerapenari ezin jako trabarik jarri, hori hanka-sartze haundixe da. Argi dau kontu haundixekin egin biher diela aurrerapenak, eta zertarako ibilli biher dien neurtu. Hortxe daukou polborien edo radioaktibidadien adibidiek. Txarto ibillite, hiltzeko balixo daue.

Kantzerrakin dauketzue oin burruka haundixe.

Halaxe da, baiñe aurrerapen haundixek gabitz egitten. Zitologiai esker, umetokiko lepoko kantzerrien aurrerapen haundixek egin dou, eta gaiñera, belaxe urten biher dau bakuna batek. Umetokiko gorputzeko kantzerrai ondo gabitz aurre egitten, eta rebisiño peridikuek egittie da aurre egitteko modu onena. Obarixoko kantzerritan ez gabitz horren ondo, hori egixe da, eta hortxe egin biher dou fuerte; 50 urte baiño gehixau daukon emakumie urtero egin biher dutzou ekografixak.

Eta bularreko kantzerrien?

Gauzie da gerueu eta bularreko kantzerr gehixau dauela, eta gerueu eta emakume gaztiaueta. Diagnostikue ahalik eta azkarren egittie da onena, eta derrigorrezkue izen biherko leukie 50 urtetik aurrera, urtero, mamografixie egittie.



Txitxinpe

Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak

Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a
Tel./Faxa: 943 79 01 82



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erlebedun hizkiak

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



ERRUGBI TXAPELKETA ETA GARAGARDO JAIJA, BIKAIN

Arrasate Errugbi Taldekoek asteburuaren balorazioa egin dute, eta jakin badakigu oso gustura geratu direla. Nazioarteko Zazpinako Txapelketan hamar taldek hartu zuten esku, eta maila polita izan zen. Zazpigarren geratu ziren arrasatearrak, eta hori da hobe dezaketen gauza bakarra, gainontzekoa txalotzeko modukoa izan delako. Garagardoaren Jaiak, inoiz baino karpa handiagoarekin, harrera oso ona izan zuen. Egubakoitzean lasai ibili ziren, giro onean, baina zapatuan karpako azkeneko txokoa ere bete zuten. Sari banaketarekin batera, bazkideen zozketa ere egin zuten, eta 410 da zenbakia sariduna. Horrekin batera, omenaldi txikia egin zioten Maria Iriondori, taldearen alde egin duen lanagatik.



BESAIDEKO 315 LAGUNEK HARTU ZITUZTEN ASTEBURUAN PAGASARRIKO INGURUAK

Besaide Mendi Elkartekoek urteroko irteera egin zuten joan den zapatuan, Bizkai aldera. Zollon hasi zuten ibilaldia, eta Zollon atera zuen argazkilaria lanetan ibili zen Alvaro Arregik goiko erretratua. Zollotik Pagasarrira egin zuten oinez, handik Gainekogortara eta Zollora buelta. Gutxi gorabehera lau ordu inguru egin zituzten oinez, buelta polita. Autobusean joan ziren

Gueñesera, eta han bazkaldu zuten. Eta bazkalostea aprobetxatu zuten zortzimilako bat egin duen lehen arrasatearra omentzeko, Bittor Amozarrain, hain zuen. Gizon lasaia bada ere, dantzari, bertsolari eta bestelakoekin hunkitu ere egin zen Bittor; ez zen gutxiagorako. Ilunkera partean Sodupen egin zuten txikiteoa, eta 20:00ak aldera hartu zuten Arrasaterako bidea.



GIROKO PORRAK ERE GERO ETA PARTE-HARTZE HANDIAGOA

Joan den urtean baino 69 postura gehiago izan dituzte aurtengo Giroko porran, 411 guztira. Horrek esan gura du, Tourra alde batera utzita, Italiako itzuliak ere sari ederrak eman dituela. Batutako dirutik, Fernando Arrasate eibartarrak jaso zuen joan den martitzenean egindako sari banaketan ia bost mila euroko saria (4.932 euro). Gonzalo Torres izan zen bigarrena (3.082 euro), eta Santi hirugarrena (1.541 euro). Horrekin batera, laugarrenetik hamargarren saritura artekoek 308 euro jaso zituzten.

ad **Ibabe**

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.

Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

arbolapeta



KONTRATAK

IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14
ARRASATE

ELKARRIZKETA

MIKEL ARANBURU/ABADEA

“Burua ondo daukadan bitartean eta inor aspertzen ez badut, lanean jarraituko dut”

IKER BARANDIARAN

Mikel Aranburu oñatiarrak 24 urte bete ditu Uribarri auzoan abade, eta orain ustez erretiratu egin da. Domekan auzotarrek omenaldia egingo diote, baina hark egunero jotzen du Uribarrira hango eta inguruko lanak egitera.

Oñatiarra izanda, zure bizitzako zati handiena Leintz ibarrean igaro duzu...

Oso gustuko dut Leintz ibarra. Eskoriatzako elizateetan abade ibili nintzen: lehenengo Mazmelan, eta gero Zarimutzen ere bai. Handik denborara, Leintz Gatzagako eta Maringo arduradun ere izendatu ninduten. Horren ostean, Eskoriatzan ibili nintzen. Eta orain dela 24 urte, Arrasateko Uribarri auzora bidali ninduten. Ordurako, aldatzeko gogoia nukan. Gainera, Oñatitik eta Eskoriatzatik gertu jarraitu dut.

Zelakoa da Uribarri?

Oso auzo handia. Oraindik ere erdaldun jende asko bizi da hemen. Kale batzuetan %82 kanpokoak da. Jende asko integratu barik dago, eta ez daukate auzo honetakoak diren nortasunik. Adibidez, San Andreskoek eta Musakolakoek badute nortasun hori. Horrez gain, taberna oso gutxi daude, eta jendeak Uribarritik kanpo jotzen du txikiteora edo beste edozer egitera.

Berezia da baita ere auzoan bi alkate egotea, eta jaiak ere banatuta egitea. Urte baten Udalak agindu zuen batera egitea, baina gerora ez da errepikatu.



I.B.

Hizkuntza aldetik ere badago zer egin. Meza elebiduna esaten dugu, baina hainbat auzotar kexatu egiten dira euskarazko hitzak sartzen ditugulako.

Garaiak on edo txar egingo dio auzoari?

Nik uste dut on egingo diola. Etxe asko egingo dituzte, jende gaztea etorriko da... Auzoari aberastasuna ekarriko dio. Horrez

“Uribarrikoek ez daukate San Andreskoek eta Musakolakoek duten nortasun hori”

gain, hori egin eta gero, eliza auzoarekin lotuta geldituko da.

Zeintzuk izan dira zure egin-kizun nagusienak Uribarrin?

Denetatik egin dut. Mezak prestatzeaz gain, umeen eta gazteen heziketa... Sasoi baten ume asko izan genituen, eta begiraleekin gauza asko antolatu beharra zegoen. Gaur egun, askoz ume gutxiago daude, baina lana bada-

go, gura beste. Ahalegindu gara gaixoei, gazteei, helduei eta bestelakoei laguntzen. Eta jende asko izan dugu laguntzen, jakina.

Zerk bete zaitu gehien Uribarrin egin dituzun gauzetatik?

Orokorrean ez nuke ezer berezirik nabarmenduko. Ahalegindu naiz guztiekin -euskaldunekin, erdaldunekin...- ondo konpontzen, laguntzen eta ahalik eta lan gehien egiten.

Itxuraz ondo moldatu zara, eta auzotarrek eskertu egin gura dizute omenaldi batekin...

(Barreak) Ez naiz omenaldien zalea, baina orain dela gutxi Gotzaindegian eta Oñatin hala-koak egin dizkidate, eta auzotarrek egin gura badidate, zer esango diet? Ondo etor dadila! Ez dut uste ezer berezirik egin dudarik. Nik egin dut egin behar nuena, eta ziur hutsune edo akats batzuk egingo nituela.

Orain gabilza eliza mailan San Andres eta Uribarri elkartetzeko asmotan, eta domekan bi auzoetako lagunak elkartuko gara.

Jakin dugunez, ustez erretiratu zaren arren, oraindik ere hainbat lan egiten dituzu. Geldiezina zara?

Egunero joaten naiz Uribarrira. Bestela, zer egingo dut egun guztian? Beti daukat mahai gainean lan asko egiteko. Burua ondo daukadan bitartean edo inor nirekin aspertzen ez bada, lanean jarraituko dut. Hala esan nion gotzainari. Ama batek eta abade batek ez dute inoiz oporrik ezta erretirorik hartzen. Azkeneko urteotan ibarreko elizaren ondatsunak kudeatu ditut, eta zeregin horretan jarraitzen dut.

Abaroa Saiolango azkeneko solairuan jartzeko proiektua

I.B.

Herritar batek Abaroa elkarteak kokatzeko proiektu bat egin du, eta PPko Itziar Lamarainek udaletxean aurkeztu du. Saiolango eraikinari hirugarren solairua egingo liokete.

Orain dela hilabete batzuk, PPko Itziar Lamarainek jakin zuen Udalak Abaroa lekuz aldatu gura zuela, eta Abaroako erabiltzaileek ez zituztela Udalaren proposamenak onartu. Lamarain arrasatear batzuekin elkartu zen, eta


bati proiektu bat idazteko eskatu zion, baina Lamarainek orain dela gutxi arte gordeta eduki du. “Ez nuen hauteskundearen aurretik aurkeztu gura, eta horrez gain, gaia ondo landu gura nuen”.

Hain zuzen ere, proiektuaren arabera, Abaroa Saiolango eraikinaren goialdean jarriko lukete, egungo eraikinari solairu bat gehiago batuta. “Hasieran elkarte eraikinaren hirugarren solairuan jartzeak harrিতuta utzi ninduen, baina hirugarren adinarekin lan egiten duten elkarte batzuek eta hainbat erretiratuk

esan didate igogailuak badaude eta oztopo arkitektonikorik ez badago, ez dagoela arazorik”.

Lamarainen esanetan, erretiratuen elkarte eta musika etxea bateragarriak dira. “Adibidez, elkarteko taberna musikariek ere erabiliko lukete. Horrez gain, gazteak eta zaharrak batera egotea ona da biezatzat”. Eta honako hau azpimarratu zuen: “Nik gura dudana da behintzat Udalak proiektua aztertzea”.

Abaroa elkarteak esan digu orain arte jaso duten proiektuetatik onena dela.



ARRASATE PRESS

Azkeneko solairuak 1.700 metro koadro erabilgarri izango lituzke.

arrasate musikal



Matrikulazio epea zabalik:
Maiatzaren 23tik
ekainaren 22ra.


Berritasunak:

- Gaita
- Harmonia modernoa

4 urtetik aurrera.
Helduentzako eskolak.
Balleta



Edertasun gida



ILE APAINDEGI mistoa

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

**A
U
SART**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILEAPAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

EZETZASMATU



UBANE MADERA

Zein izen dauka argazkiko baserri horrek?
Arrastoa: Arrasaten bada kale bat, izen berarekin.

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera
12 erroilu+4 doan

2,90€ 483 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

CHARO TROJAOLArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Charo!
Galderen erantzun zuzena:
Zaldibarren.

ERRETRATUZAHARRA

Murugaingo gurutzearen urteurrena

Ekainaren 4an inauguratu zuten Muru mendian dagoen gurutzea, orain dela 55 urte. Urteurren hori gogora ekartzeko, zenbait argazki eta dokumentu utzi dizkigute; hala, bi ataletan argitaratuko ditugu, Murugaingo gurutzearen gaineko zenbait datu kontatzeko aitzakia moduan:

UDA kirol elkarteko mendizale taldeak erabaki zuen Murugainen burdinazko gurutzea ipintzea. UDAREN sorreran zerikusia izan zuen Lezama y Cia lantegira joan eta euren ideia azaldu zieten. Haiek, berriz, behar zuten materiala eman zieten. Eta lan orduetatik kanpo Beroako fabriketan batzen ziren, gurutzeari forma emateko. Besteak beste, mendi taldeko arduradun Mariano Oterok eta Jose Maria Izagirre eta Jon Ugalde kideek lan egin zuten gurutzea eraikitzen. Santiago Mayoralek lagundu zien forma ematen, eta postontzia ere hark eraiki zuen.

Maiatzaren amaierarako bukatuta zegoen gurutzea; 10 metro zituen



luzeran, eta orduan bi erronka planteatu zitzaizkien egileei: zela jaso goraino eta behar ziren baimenak lortzea. Hala, Gipuzkoako gobernadore zibilarri eskatu zioten baimena maiatzaren 22an bidalitako gutun baten, eta baiezeko erantzuna heldu zen maiatzaren 25ean jasotako beste gutun baten.

Egun batzuk geroago, maiatzaren 28an, Galartzako baserriarren idi eta gurdien laguntzarekin jaso zuten gurutzea mendi tontorreraino. Argazkiak erakusten du zela prestatu zuten tontorra, gurutzea ipintzeko: honakoak azaltzen dira argazkian, ezkerretik hasita: Isidoro Arenaza, Ramon

Antxia, Jose Mari Makazaga, ezezaguna, Jose Mari Izagirre, Jon Ugalde, Jose Arregi eta Luis Leanizbarrutia.

Argazkia eta informazioa: Aitor Antxiaren *Murugain 50. urteurrena 1950-2000* liburua, Urtea: 1950



Opel. Ideia berriak. Auto hobeak

Astra GTC berria

Hain da dinamikoa, begiratu eta gerrikoa
jarri beharko duzu



Begiratu, hori bakarrik egin behar duzu. Opel Astra GTC berria arintasunarekin eta segurtasunarekin mugitzeko pentsatua dago. Ondorengo motorrak: 2.0 Turbo 200 ZP eta diesel CDTI 150 ZPraino, IDS eta Sport Switch sistemak, AFL faro moldakorrak, haizetako panoramiko eskusiboa, ESP egonkortasunaren kontrol elektronikoa, 6 aire-zaku, abiaduraren kontrola, barruko nabigatzailea, irratia-MP3 eta telefono integratua, 18" aleaziozko hagunak. Gidatzean disfrutatzeke behar duzun guztia.

www.astragtc.com.es

GMAC FINANCIAL SERVICES

Proba ezazu 3 egun* konpromisorik gabe ondorengo telefonora deituta 902 21 23 23, edo zure Opel Banatzailean.

Promozio baliagarria 2005eko maiatzaren 7tik ekainaren 30era. Probak egingo dira banatzaileek modelo honetako autoa prest baldin badute. Ondorengoentzako baliagarria: banatzaileen sarearentzat eta promozio honetan parte hartzen duten Espainiako Opel Salmenta Ofizialeko Agenteentzat. Notario aurrean utzitako oinarriak eskuragarri. Irakurri ondo, mesedez, autoa erabiltzeko dokumentuan agertzen diren baldintzak. Astra Gama GTC: Kontsumoa (l/km) mistoa 4,8tik 9,3ra. CO₂ emisioa (gr/km) 130etik 223ra.

Giauto Arrasate

Kontzesionario ofiziala:
San Andrés 10 D. Tel. 943 77 30 10. ARRASATE
www.giauto.es

Giauto Bergara

Kontzesionario ofiziala:
Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/45/46/47. BERGARA
www.giauto.es

Aretxagazeta

ARETXABALETA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a

384. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Mirari Altube • Durana 11 ARETXABALETA 20550 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: aretxagazeta@goiena.com • Lege gordailua: SS378/94

Aretxabaleta Abesbatzak 25 urte bete ditu, eta domekan hasiko dira ospatzen

MIRARI ALTUBE

Domekan, ekainaren 12an, 25. urteurrena ospatzen hasiko da Aretxabaleta Abesbatza. Meza nagusia abestuko dute lehenengo eta bazkaria egingo dute gero. Abeslari, bazkide, eta abesbatzako kide izandako asko elkartuko dira Taberna Berri jatetxean.

Ospakizunez betetako urtea du aurrez aurre Aretxabaleta Abesbatzak. Domekan, ekainak 12, hasi besterik ez du egingo.

LEHENENGO, GIZONEZKOAK

Bitoriano Aranburu parrokoaren eskaerari erantzunez sortu zuen Angel Mari Barandiaranek Aretxabaleta Abesbatza, 1980an. Juan Luis Izagirre izan zen lehenengo zuzendaria, eta hasiera baten gizonen osatutako abesbatza izan zen. Herrian, baina, bazeuden abesbatzan ibilitako emakumeak, eta irailean bertan, emakumeekin osatutako abesbatza egin zuten. 1981ean Juan Luis Izagirre hil egin zen eta Angelek hartu zuen abesbatzaren ardura.

GREGORIANOAREKIN SARIK

Erlijio-polifonia eta euskal folklorea izan zituen ardatz lehenengo urteetan. Parrokiako jaie-



Gaur egun 30 kidek osatzen dute Aretxabaleta Abesbatza, eta parrokiako elizkizun nagusietan eta hiletetan abesten dute.

gun nagusietako elizkizunetan abesten zuen, orain bezalaxe, eta gregorianoa lantzen hasi ziren. Hala, Espainiako gregoriano abeslaririk onenen artean egon zen garai hartan, eta lortutako sariarik onenak ere gregorianoaren alorrean jaso zituen.

1986an Erromako San Pedro Basilikan kantatu zuen meza Are-

San Migeletan kontzertu berezia egingo dute: Pablo Sorozabalen 'Katuska' zarzuela

txabaleta Abesbatzak, eta Juan Paulo II.a aita santuaren aurrean euskal abesti bat abestu zuten. 1995ean abesbatzako gizonzkoek eta Gasteizko abesbatza batek gregorianoa abesteko taldea osatu zuten. Hurrengo urtean diskoa grabatu eta Ameriketako Estatu Batuetako hainbat hiritara joan ziren aurkeztera.

Hainbat domina irabazitakoa da, gainera, abesbatza: Tolosako Nazioarteko Lehiaketan 1982an, 1985ean, 1987an, 1991n eta 1992an. San Vicente de la Barqueran 1988an, eta Avilesean 1992an.

URTEURRENEKO OSPAKIZUNAK

Domekan hasiko dituzte urteurreneko ospakizunak. Meza nagusia abestuko dute lehenengo, eta bazkaria egingo dute gero Taberna Berri jatetxean. 100 bat lagun elkartuko dira: kide, kide ohi, bazkide eta laguntzaileak tartean. Hala ere, bertan ibilitako baten batek gonbidapenik jaso ez badu jar dadila abesbatzako kideren batekin harremanetan.

Ospakizunekin jarraituta aurtengo San Migel jaietan kontzertu berezia egin gura dute: Pablo Sorozabalen *Katuska* zarzuela, hain zuzen. Bestalde, Kilmetroak 2005 jaian ere abestuko dute urriaren 2an, eta azaro inguruan organo kontzertu bi emanango dituzte. Abenduaren 25eko Gabonetako kontzertuarekin emango diete bukaera urteurreneko ospakizunei.

Horrez gain, gure herriko musika arloa aztertzen eta jasotzen duen liburuxka egin gura dute. Hortaz, norbaitek dokumentazio edo argazkiren bat badu eman diezaiola Angel Barandiarani.

Urkulu urtegi ingurua txukundu eta biziberritu egin gura du Udalak

M.A.

Bi egitasmo daude Urkulu urtegirako; batetik, bide bazterrak txukundu egingo ditu Foru Aldundiak, eta bestetik, lau ataleko proiektua lantzen dabil Udala Naturgintza fundazioaren laguntzarekin.

Urkuluko azpiegiturak hobetzeko oinarritzko proiektua egin eta onartu egin du Foru Aldundiak. Hala, bidea asfaltatu, aparkaleku ego-

kiak jarri eta urak jasotzeko sistema jarriko ditu. Lanok oraingo hilean ziren hastekoak.

NATURGINTZA FUNDAZIOAREKIN

Horrez gain, Urkulu zela zaindu eta biziberritu aztertzen dabil Udala. Horretarako Naturgintza fundazioaren laguntza dauka, eta proiekturik egokiena egiteko talde bat osatu zuten: Foru Aldundiko parke naturalen zuzendari Iñaki Aizpuru, Landa Garapeneko Mari Karmen Iturbe eta Mankomunitateko

turismo teknikaria izan ziren, Naturgintzaren eta Udalaren ordezkariekin batera.

Lantalde horretan lau ildo ezarri zituzten: Urkuluko ur-bazterrak txukuntzea; Urkulutik Arantzazura dagoen bidea egokitu eta behar bezala seinaleztatzea; ur bazterrean dauden pinudien ordez bertako zuhaitzak landatzen hastea eta nekazari ingurua dagoen-tan mantentzeko behar diren neurriak hartzea. Poliki-poliki hasiko dira lantzen ezarri dituzten ildoak.



Lau ildo dituen egitasmoa dauka Udalak Urkulu urtegi ingurua biziberritzeko.

FARMAZIENTXANDA

ZAPATUA, 11
ITURRALDE, Belorrieta 1. . . 943 79 27 22

DOMEKA, 12
ITURRALDE, Belorrieta 1. . . 943 79 27 22

TELEFONOAK

OROKORRAK

Almen	943 71 49 07
ARETXAGAZETA	943 79 86 21
Faxa	943 77 18 54
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Industrialdea	943 79 62 80
Institutua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Gazteria saila	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
KZGunea	934 79 94 44
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Basabeazpi Ikastola	943 71 21 18
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udalzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALZAINGOA

Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 79 71 99
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00
943 46 11 11	
Suhiltzaileak (Onati)	943 78 28 00

Iber

★ Loteria ★


✻ Paper denda ✻

✻ Liburuak ✻

Otalora 2.
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 04 39

Jauregi Okindegia

Otalora 10
Tel.: 943 79 57 47
ARETXABALETA



ARTXIBOA

Kepa Urrak jarritako tortura salaketa onartu egin du Nazio Batuen Erakundeak.

Torturaren aurkako neurriak hartzeko 90 egun

M.A.

Kepa Urra preso aretxabaletarrak egindako tortura salaketa onartu egin du Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Batzordeak. Onartu bakarrik ez, 90 egun eman dizkio Espainiako Estatuari torturaren aurkako neurriak har ditzan. Erabaki benetan garrantzitsua, Torturaren Aurkako Taldearen esanetan.

Joan zen astean eman zuen TATk erabakiaren berri, eta erabaki garrantzitsua dela adierazi zuen, Espainiako Estatuari presioa egiteko balioko duelako.

ORAIN 13 URTEKO KONTUAK

Kepa Urra aretxabaletarra 1992ko urtarrilaren 22an atxilotu zuten guardia zibilek, Bizkaia komandoko kidea zela esanaz. Kuartelera bidean torturak jasan zituen Kepak, eta hala, salatu egin zuen. Buruan, aurpegian, sudurrean, bizkarrean, urdailean, mokorrean, besoetan eta hanketan zituen kolpeak, ospitaleko medikuek ziurtatu zuten moduan. Tortura salaketok onartu, eta 1997an hiru guardia zibil zigortu zituzten. Bakoitzari lau urteko kartzela zigorra eta sei urtean kargua betetzeko gaitasun barik utzi zituzten.

Barne Ministerioak, baina, indultua eman zien hiru guardia

zibilei, eta hiruretako bat, gainera, ardura handiko postuan eduki zuen.

NAZIO BATUEN ERAKUNDERA

Horren aurrean Nazio Batuen Erakundearen aurkeztu zuen Keparen kasua TATk. Torturak jasanakoei justizia izateko duten eskubidearen aurka doala zigorraren ezabaketa adierazi zuen aipatutako taldeak. Eta gaineratu, indultuak torturarik egon ez dela adierazi, eta aurrerantzean ere torturatzen jarraitzeko bidea zabaltzen duela.

Nazio Batuetako Torturaren Aurkako Batzordeak Kepa Urraren tortura kasua aztertu eta gero, onartu egin du salaketa. Ez hori bakarrik, eskari zehatzak egin dizkio Espainiako Estatuari: 90 egunen buruan neurri zehatzak hartzea torturaren aurka, eta horren berri ematea aipatutako batzordeari. Gainera, uste du batzordeak torturatzaileei ezarri behar zaien zigorrak eragindako torturen arabera izan behar duela, eta indultuak torturatzen jarraitzeko arrazoia ematen duela.

TATko kideen esanetan, erabaki garrantzitsua izan da, Espainiako Estatuari torturatu egiten dela erakusten duelako. Gainera, uste du presioa egiteko balioko duela erabakiak.

LABUR

Martitzenean, hilak 14, batuko da Tokiko Agenda 21eko foroa diagnosis eztabaidatzeko

Tokiko Agenda 21en prozesua aurrera doa, eta iraunkortasun foroa osatu ostean udal diagnosis eztabaidatzea dagokie. Herriaren ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak adierazi beharko dituzte foroan batutakoek, etxean bete behar zituzten fitxa bidez. Hala, Aretxabaletako gizarte, ekonomi eta ingurumenaren gainean dau den iritziak jasoko dituzte.

Martitzenean, ekainak 14, izango da bilera, 19:00etan, udal txeko ganbaran. Proiektuaren garrantziaz jabetuta deialdi zabal egiten du Udalak, eta aurreko bileretan parte hartu ez zutenek ere ateak zabalik izango dituzte.

Inersok antolatutako bidaietan joateko ekainaren 30a da izena emateko azken eguna

Inersok antolatzen dituen bidaietara joan gura duten erretiratuek eskaera epea zabalik daukate. Udaletxean dagoen Prebentzio Zerbitzura joan behar dute eskaera paperak betetzera, eta azken eguna ekainaren 30a, eguna, izango da. Prebentzio Zerbitzuko teknikaria, Myriam Beltran de Heredia, astelehen, martitzen eta egubakoitzetan egoten da bulegoan.

Andramaixak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa zabalik dago

Ekainaren 30a izango da kartelak aurkezteko azken eguna, eta edozeinek aurkez dezake. Teknika librean egina 50x70 zentimetroduna edo disketean ekarrita DIN-A3 neurrikoa eskatzen dute. Derrigorrez ondorengo testua izan beharko du: *Andramaixak 2005; abuztuaren 14a, 15a, 16a eta 17a; Aretxabaleta*. 300 euroko saria jasoko du irabazleak eta uztailaren 4an jakinaraziko dute.

Bederatzigarren aldiz Kurtzebarri eguna zapatuan

M.A.

Eskolako eguna ospatuko dute bihar, zapatua, Kurtzebarri eskolan. Bederatzigarren aldiz dute aurten, eta ikasle, irakasle eta gurasoak elkartuko dira jai giroan.

Ikasturtea bukatzerako doa, eta horren adierazgarri dira ikasleen txangoak eta ikastetxeetako jaiak. Hala, bihar, zapatua, Kurtzebarri eskolako eguna ospatuko dute.

BAZKARIA ETA DANTZA

Goizeko 10:30ak inguruan eman gura diote hasiera jaiari, eta mendi ibilaldia egingo dute lehenengo gura duten guztiak. 12:00etan Haur eta Lehen Hezkuntzakoek kirolak egingo dituzte eskolako

jolastokian. Goiza luzeegia ez egiteko mokadutxo hartuko dute, eta indarrak berreskuratuta bolo txapelketa izango dute gurasoek. 14:30ak inguruan bazkaria egongo da Iturrigorri frontoian. Bazkalostean, aurpegia margotzeko tailerra eta buruhandiak izango dira ume zein gaztetxoek gozagarri, eta 16:30etik 18:30era bitartean Patxi Perez animatzaileak dantzan jarriko ditu jaiantako guztiak.

Duela bederatzigarren urte hasi ziren jai antolatzen, eta zalantza barik egun ederren izaten da Kurtzebarri eskolako kideendako. Eskolako ekintza batzordetik eta zuzendaritza taldetik, gainera, eskerrak eman gura dizkiete jai antolatzen lagun egin dietenei.

Mobiliario ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

REGIANDO OPTIKA

Zure eguzkitako betaurrekoak graduatuta
65€ tan

Loramendi 10 Tel.: 943 79 98 21

Hiru kirol-sorta eskaini dituzte Kirol Zerbitzuek udarako

M.A.

Berrikuntzak daude udako kirol eskaintzan. Hiru kirol-sorta antolatu dituzte Kirol Zerbitzuek, adina kontuan izanda. Txikienek igeriketa izango dute psikomotrizitatearekin, gaztetxoek multikirola eta nagusiagoek multikirola multiabenturarekin batera.

Urtero antolatzen dute Kirol Zerbitzuek udarako eskaintza. Aurren, baina, berrikuntzaz beteta dator ume eta gaztetxoak gusturago ibil daitezen. Izena emateko epea ekainaren 19an bukatuko da.

HIRU KIROL-SORTA

Hiru kirol-sorta egin dituzte Kirol Zerbitzuetako arduradunek adinaren arabera banatuta. Txikienek, 4 eta 7 urte arteko umeek igeriketa eta ur-jolasak izango dituzte aukeran psikomotrizitatearekin batera. 10:00etatik 12:00etara egingo dute kirol jarduna.

Gaztetxoek, 8 eta 11 urte artekoek, ostera, multikirola izango dute: tenisa, futbola, golfa, pilota, patinajea, herri kirolak, badminton eta ur-jolasak. Tartekatu egingo dituzte aipatutako kirolak, eta bi ordutegi daude aukeran: 10:00etatik 11:30era eta 15:00etatik 16:30era.

Nagusienei, 12 eta 15 urte arteko gazteei, multikirolarekin batera multiabentura eskaini diete. Eskalada eta rapela, espeleologia, mendi bizikleta, arkitiroa eta beste horrenbeste abenturazko kirol. Horiekin batera, spinninga ere egin ahal izango dute. Haiek ere bi ordutegi dituzte: 10:00etatik 11:30era eta 15:00etatik 16:30era.

BI TXANDA

Kirol guztiek izango dituzte bi txanda: ekainaren 27tik uztailearen 8ra lehenengoa, eta uztailearen 11tik 22ra bigarrena. Umeen kirol-sorta aukeratzen duenak 36 euro ordaindu beharko ditu kirol etxeko txartela badu, eta 44 ez badu. Beste kirol-sorta biei dagokienez 52 euro ordaindu beharko dute txarteldunek, eta 62 ez dutenek. Taldeak sortzeko gutxienez 10 lagun eskatzen dituzte.



Igerian egiteaz gain psikomotrizitatea landuko dute aurren umeek udako ikastaroan.

*Nagusienei
multikirolarekin
batera
multiabentura
eskaini diete*

Eskainitako kirol-sortak gura ez dituenak beste kirol batzuk aukera ditzake: umeek, igeriketa; gaztetxoek, igeriketa, tenisa, golfa eta patinajea; eta nagusiek, aurreko kirolez gain spinninga eta aerobika. Ordubete iraungo dute kirol saio horiek, eta beste ordutegi batzuk dituzte, goizez nahiz arratsalde. 18 euro ordaindu beharko dute kirol etxeko txartela dutenek, eta 22 ez dutenek.

EKAINAREN 19A BAINO LEHEN

Prezioaren barruan istripuetarako poliza eta erantzukizun zibi-

*Eskainitako
kirol-sortak gura ez
dituenak beste kirol
batzuk aukera
ditzake*

laren aseguruia daude sartuta. Ordainketa izena ematerakoan egingo da eta ondoren ez dute dirurik itzuliko. Hain zuzen ekainaren 19an itxiko dute izena emateko epea. Aipatutako jarduerak guztietako ordutegiek aldaketak jasan ditzakete ikasleen eskaeren arabera, baina guztiaren berri aurrez emango diete izena eman dutenei Kirol Zerbitzuetako arduradunek.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko kirol etxera egin dezala dei interesatuak: 943 71 26 28.

LABUR

Klub arteko III. Karate Txapelketa jokatzera joango dira aretxabaletarrak bihar, zapatua

Bihar, ekainak 11, Klub arteko III. Karate Txapelketa jokatu dute Arrasateko Iturripe kiroldegian. Arrasateko, Bergarako eta Aretxabaletako Uda elkarteko karate jokalariek elkartuko dira. 94 inguru guztira. Hain zuzen Aretxabaletatik 6 eta 12 urte arteko 16 gaztetxo joango dira, eta guztiek Kata eran jokatu dute. 17:00etan hasi eta 20:00ak bitartean iraungo du txapelketak.

Hurrengo egubakoitzean, ekainak 17, bestalde, gerrikoa aldatzeko probak egingo dituzte karate jokalariek aretxabaletarrek.

Nazioarteko Futbol Txapelketa jokatu dute aste bukaeran Kilometroak antolatuta

Bihar, zapatua, eta etzi, domeka, Nazioarteko Futbol Txapelketa jokatu dute Ibarra futbol zelaian Kilometroak 2005 taldeak antolatuta. Gales, Eskoziak, Frantziak eta Euskal Herriko taldeak ibiliko dira norgehiagokan, eta alebin mailako, hau da, 10 eta 11 urteko mutikoak elkartuko dira. Euskal taldeei dagokienez ikastolaketako jai gehienen ordezkariak daude: Altsasu, Nafarroa Oinez ordezkariak; Amurrio, Araba Euskaraz; Durango, Ibilaldia; Zarautz, Kilometroak 2004 eta Bergara, Kilometroak 2006.

Goiz eta arratsalde izango dira partidua zapatuan, eta bitartean musika, Txan magoaren saioa eta trialsin erakusketa egingo dira. Domekan, goizean bakarrik jokatu dituzte.

FOTOKIROLA



Seigarren postua Espainiako Txapelketan

Hector Prieto aretxabaletarrak seigarren postua lortu zuen Espainiako Boccia Txapelketan. Joan zen aste bukaeran jokatu zuen Valentzian, eta 100 kirolaritik gora elkartu ziren. Oso pozik dago Hector lortutakoarekin, kontuan hartu behar delako asteen behin eta ordu erdiz bakarrik entrenatzen duela Bergaran. /M.A.



MAPFRE
Aseguroak

Errekabarren 3
Aretxabaleta
Tel.: 943 77 11 76

J.J. IRURE
ITURRIKINTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA

943 793 187

IRIARTE

Umeen
denda

Helduen
lentzeria



Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta
txarkuterian
espezialitatea

Mitarte 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

GARBITU S. KOOP

**Garbiketa
orokorrak**

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28


ATREBENTZIAEZPADA/ Ondo aprobetxate dau kirol etxe pareko zelaixe? Zuk ze egingo zeuke?



MANUEL ETXEBARRIETA
Jubilae



CARLA AMARAL
Langillie



XABIER ZUBILLAGA
Jubilae



FRANZISKA ALZOLA
Jubilae



XANTI GALLASTEGI
Jubilae



CELIA GONZALO
Langillie

Egokittu egin biherko litzake hobeto egoteko, oin txakur kakekin egoten da eta. Zuhaitzek haundi egitten dienien ondo geratuko da, eta gune berde moduen itxi daixela ezer eraiki barik.

Ez, hobeto aprobetxatu biherko litzake, oin ez dau ezer-eta. Umjendako oso leku gutxi dau Aretxabaletan, eta ondo etorriko jakue txintxonak dittuen parke polit bat egittie.


Ez dauela ondo aprobetxate, duda barik. Zeozer egin leikie, baiñe zer... Leku zoragarrixe da, lursail politte, eta behintzet estudixau egin biherko leukie. Kirol etxie bera be han dau...

Lehen esaten euen pistinie egin biher euela bertan. Leku ona dala pentsetan dot, eta zeozertarako aprobetxau biherko leukie. Dauenetan umiek be ezin daue jolasik egin.

Dauen moduen ondo dauela pentsetan dot, umiek ibiltteko, baiñe txakurren uga zabei kakak bertan ez ixteko esan biherko dutzou. Egixe esateko, ez dot pensau zer egin leikien bertan.

Neskatilla-mutikuendako parke dotore bat egittie izengo litzake polittena, lasai ibilli daittezen bertan. Oin txakurrekin beteta egoten da, eta hori be penie da gero.

TXALOAKETATXISTUAK



TXISTUAK ZARATA HANDIEGIA Kutsadura akustikoa esaten die- te orain zaratei, eta askok uste baino kalte handiagoa egiten digu- te. Osasun arazo larriak eragin ditzakete, gainera, eta poliki-poliki horrekin konturatzen hasi gara. Hala, Iralabarri plazako bizilagun- nak kexu dira inguruko industrialdean zarata handiak eta asko ater- ratzen dituztelako, batez ere gauetan. Eta salaketa jarri dute./ M.A.

ORAINDELA3URTEARETXABALETAN

Larrino auzoko bidea konpontzea erabaki zuten

Auzotarrak denbora luzean kexa- ka ibili eta gero, Foru Aldundiak konpontzea erabaki zuen Larrino- ra doan errepidea. 187 mila euroko aurrekontua izan zuten lanek, eta hiru hilabetean buka- tuko zituztela aurreikusit zuen Aldundiak. Uda parte aprobet- xatu zuten lanak egiteko.



ASTEKODATUA

225

LAGUN JOAN ZIREN ANTZERKIA IKUSTERA

Joan zen zapatuan *Ezetz lepoa jarri!* antzezlanaren eskaini zuen Kanpingags taldeak kirol etxean. 225 lagun joan ziren ikustera eta barre galantak egin zituzten sei aktoreen ateraldi xelebreekin.

BESTEKEESANA

“Estetika berezi bat sortu nahi dugu doinuarekin eta hitz jokoe- kin. Indarra, sormena eta gogoa transmititzen dituela esango nuke. Eta esanahia? Ba uste dut gauza asko daudela deszifratzeko. Ahalegin apur bat egitea ere ona da, dena papila eginda jaten ohituta gaude eta. Baina, bai, pentsatzen dugu kantuaren inguru- an ahalegin pedagogiko bat egitea, pista batzuk emanez. Jolas bat da. Hiru zati ditu kantuak. Bata O bokalarekin egina dago. Bestea I bokalarekin. Azkena A bokalarekin. Sormenari buruz hitz egiten du, nortasunaz eta unibertsaltasunaz, jakintza irekitzeaz, bihotzez jokatzeari, hizkuntzari bizitza emateaz, kooperatibagintzaz, Leintz bailaraz, eta garena beldur barik ateratzeari. Bizitzeko dei bat da.

JON SARASUA
‘Kilometroak.org’/05-06-01

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Bidegorria edo motobidea?

Herrik Urkulura doan bidegorria oso ibilbide popularra da. Daukagun baliabi- deen artean erabilienetakoa, esango nuke nik. Baina aspaldian popularregia bihurtu dela esatera ausartzen naiz. Zuetako askok erabiltzen duzue Urkulura paseoan joateko eta oso posible da zuek ere bide horretan noizbait sustoren bat edo beste sufritu izana bertan dabil- tzen motoekin.

Bidegorriak bidegorri direnetik oinezkoentzat eta bizikletentzat esparrua dira. Eta esparru segurua izan gura dute gainera, oinezkoak eta txirindulariak automobil, kamioi, moto eta gainontzeko arrisku- etatik aparte mantenduz. Ondorioz zer dela eta dabil- tza bertan motoak geroz eta sarriago?

Ez da zarata kontua bakarrik. Ezta atzetik moto handi bat datorrela sumatzen duzunean sufritzen duzun sustoaren kontua ere. Segurtasun arazo larria ere

bada. Bidegorria hartzen duten motoak mendi motoak dira, kasu askotan oso moto indartsuak. Eta egia bada ere hurbiltzen direnean askok abiadura moteltzeko begirunea dutela, halako trastetzar bat hanka artean eramanda segidan bueltatzen zaie “kaña”

“Edozein egunetan edonor zaurituko dute abiada bizian jasotzen dituzten harriekin. Eta orduan izango dira komeriak”

emateko gogoia. Ez dira konturatzen, ostera; atzean geratu garenok jasotzen dugun harri zaparradarekin. Edozein egunetan edonor zaurituko dute abiada bizian jasotzen dituzten harriekin. Eta, beti bezala, orduan izango dira komeriak. Baina, beti bezala, beranduegi izango da orduan.

Bidegorria eta motoak ez dira bateragarriak. Beraientzat badute errepidea, oinezkoek trabarik egin gabe gainera. Beraz, neurri- rik hartu ahal duenak har dezala, eta egin dezala lehenbailehen. Edo Aozaratzako errepidera bueltatu behar ote dugu berriro oinezkoak? Total, ez da askoz arriskutsuagoa.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube
ERREDAKZIOA
Mirari Altube
MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin
ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94
ISSN
1134-2609
TIRADA
3.800 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzua

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurilaritzako Kultura Saila



Gipuzkoako Foru Aldundia



Aretxabaleto Udala



Eskoriatzako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Ze barri?

ESKORIATZA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a / 212. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Iker Barandiaran • Otalora 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: 55200/99

Aste Zapatista izenpean, herrien eta zapaldutakoen aldeko egitaraua egin dute

IKER BARANDIARAN

Astelehenetik (hilak 13) zapatista arte Aste Zapatista egingo dute. Txiapasen aldeko taldeak eta gazte batzarrak antolatu dute. Hainbat berbal-di, film emanaldi eta erakusketak egingo dituzte. Horrez gain, zapatuan, jaia egingo dute Herriko Plazan.

Eskoriatzako Txiapasen aldeko taldeak, hau da, *Yurre-k* eta beste lagun batzuek, hainbat bider antolatu dute Aste Zapatista. 1995ean egin zuten lehenengo edizioa, baina ez dute urtero antolatu.

1994an *Yurre* Mexikora joan zen oporretan. "Turismoa egitera joan nintzen, baina oharkabean Txiapasen zelan bizi diren eta hango borroka ikusteko aukera izan nuen. Hark eragin egin zidan". Euskal Herrira bueltatu eta Txiapasera behatzaile joateko ikastaroa egin zuen. Orduetik hona hamar bider joan da. Urtero ibarrean batutako dirua hara eramaten du, eta ahal duen lanetan laguntzen du.



Txiapasen duten borroka ikusi eta gero erabaki zuten jai hori antolatzea, eta Txiapasen alde dirua batzea.

EZ BAKARRIK TXIAPASEN ALDE

Joan den urtea ezker, Eskoriatzako gazte batzarra ere antolaketan lanean dabil. *Yurre*-ren esanetan jardunaldien helburua

da Txiapasko egoera aditzera ematea, eta baita ere beste herriei eta zapaldutakoei laguntzeko kontzientzia piztea. Horren premia handia ikusten du.

Astelehenetik zapatista bi erakusketa jarriko dituzte kultura etxean: *Los rostros detrás del pasamontañas*, eta Txiapasko komunitateen ur-kanalizazioen gaine-

ko bat. Biak hala biak, 19:00etatik 21:00etara ikusgai.

Astelehenean, oinarrizko errentaren gaineko berbal-di egingo dute kultura etxean, 19:00etan. Zer diru-laguntza eska daitezkeen azalduko dute. Martitzenean, *Yurre-k* Txiapasko bizimodua azalduko du zaharren egotzian, 16:30ean. "Iaz erretiratuena elkartean izan nintzen, eta oso harrera ona egin zidaten. Aurten, egoitzara jotzea erabaki dut". Egun berean, Omar Angel mexikarrak Plan Puebla Panama proiektu erraldoiaren gainean berba egingo du. AEBek bultzatu gura dute.

Eguaztenean eta eguenean, filmak emango dituzte Inkernu eta Naira tabernetan, 22:00etan. *De la calle* eta *Nicotina* lanak izango dira, hurrenez hurren. Egubakoitzean, *Zapatismo y utopia* liburua aurkeztuko dute, kultura etxean, 19:00etan.

Zapatuan, jai erraldoia egingo dute. 13:00etan, txikitea musikariek lagunduta; 14:30ean, bazkari mexikarra plazan; 16:30ean, jolasak; 19:30ean, kalejira txar-rangarekin; eta 22:30ean, kontzertua gaztetxean.

Bihar, zapatua, Luis Ezeiza eskolak Herri Eskolaren Jaia egingo du

I.B.

Urtero moduan, Luis Ezeiza eskolako Guraso Elkarteak Herri Eskolaren Jaia antolatu du. Bihar, zapatua, izango da, eta ume, gaztetxo eta helduendako moduko egitaraua antolatu dute.

Gurasoen Elkarteko presidente Eguzkiñe Alberdik azaldu digu jaiaren helburua dela guraso, ume eta irakasleek bat egitea. "Gurasoek ez dugu elkar ezagutzen, eta egun hori aproposa da horretarako". Hala ere, azpimarratu du jai herritar guztiendako dela. "Luis Ezeizakoendako baka-

rrik egingo dugun ekintza bakarra herri bazkaria da".

Lau bat hilabete daramate lanean eta egitarau polita egin dute. 10:15ean etxafuegoak jaurtiko dituzte. Horren ostean, 10:30ean, eskolako umeek ikuskizunak egingo dituzte. Txikienek, kanpoko eszenatokian; eta nagusienek, eskola barruan.

TRIALSIN ERAKUSTALDIA

Aurtengo berrikuntza izango da trialsin erakustaldia. Eskoriatzako gaztetxo batzuk, 7 eta 13 urte bitartekoek, erakustaldia egingo dute prestatutako zirkuitu baten. "Askotan gaztetxoendako moduko ekintzen

hutsunea sumatzen dugu, eta horixe antolatzea erabaki dugu".

13:15ean, buruhandiak irten go dira, eta horren ostean, umeen eta helduen herri bazkariak egingo dituzte. Bietan izenematea itxita dago: 60 bat ume eta 80 bat heldu eseriko dira mahaiaren bueltan.

Horren ostean, umeendako gaztelu puzgarriak eta zezen mekanikoa jarriko dituzte. Helduek, berriz, dantzaldiarekin gozatuko dute. 20:00ak arte iraungo du jaiak.

Bestalde, Gurasoen Elkarteak iragarri du hilaren 18an eta 19an Aitzorrotzen kanpaldia egingo dutela.



Luis Ezeizako ume eta gaztetxoak deseaten egoten dira urteroko jai heltzeko.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA	
Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK	
Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaingoa (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deliak	112

OHARRAK


AMUSKAKOAK, MADRILERA
Hilaren 18tik 19ra Amuskak Madrilerara txangoa egingo du. Bazkideek 100 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainontzekoek 110 euro. Zapatuan irtenko dira, 07:00etan.

IPIIN KONTALARIA, EGUENEAN
Eguenean, hilaren 16an, umeendako ipuin kontaketa egingo dute Bibliotekan. 18:00etan izango da.

KZGUNEN IKASTAROAK
Egubakoitzean, hilaren 17an, Zure seme-alabak babestu leloa duen ikastaroa; eta hilaren 24an, Flashget-en gainekoa. Biak hala biak arratsaldean.

AXTROKIREN AGENDA

'ASTELEHENEN GOIENKARIA'-KO HARPIDETZAN BEHERAPENA
Axtrokiko bazkideek 5,50 euroko beherapena izango dute Asteleheneko Goiencaria-ko harpidetzan. Deitu honako telefono zenbakira: 943 76 92 70.



MIRARI ALTUBE

Eskoriatzako eta ibarreko ingurune ederrak ikusiko dituzte. Argazkian, Kurtzebarri.

Domekan, Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiaren 5.a

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Txikirri-Txikirri mendi ibilaldiaren 5. edizioa egingo dute. Hildako herriko mendizaleei omenaldia egiteko antolatzen dute, eta bi urtetik behin egiten dute.

Herriko eta inguruko mendizaleendako hitzordu garrantzitsua izaten da Txikirri-Txikirri mendi ibilaldia. Orain dela 10 urte hasi ziren antolatzen, eta bi urtetik behin egi-

ten dute. Hildako mendizaleak izaten dituzte gogoan, eta ibilbidea azkeneko urteotakoa izango da.

Domekan, 06:00etan zabalduko dute izenematea herriko plazan. Eta 07:00etan abiatuko dira Apotzagarantz. Handik Asensio, Kurtzeta, Jarindo, Bentafria, Mugarri, Degurixa eta Kurtzebarri igaroko dituzte. Guztira, 40 kilometrotako ibilaldia izango da.

Ibilbide aldapsua da, baina hainbat lekutan jaten eta edaten emango diete mendizaleei.

Parte-hartzaile asko jaietako esaldi lehiaketan

I.B.

Udaleko Euskara Sailak aditzera eman du aurten San Pedro jaietako esaldi lehiaketan iaz baino esku-hartze handiagoa izan dela. Guztira, 59 esaldi batu dituzte, iaz baino 20 gehiago.

Irabazi duen esaldia honako hau da: *Hogeita zortzi, eskuak igurtzi./Hogeita bederatz, tristurak ahantzi./Hogeita hamar, dexente samar./Uztailaren lehena, egunik onena.* Gu geu taldea izenpean, Kamilak, Ibonek, Luisek, Txikik eta Iñigok idatzi dute. Euren izan-

go da jaietako leloa, eta bostek doan afalduko dute egun baten jaietan.

Horrez gain, pegatinak egiteko beste esaldi batzuk aukeratu dituzte: *Bost Axola taldeak idatzitako Gora giro guran garenok!!!; Anta taldeko Gaur bai,/bixer be bai/eta etzi ezinbok/n izorrai!!!; Antxo taldearen Euskalduna etxeko sentiru dein/Eskoitzan euskaraz ein!;* eta Pintxo piñaburu taldearen *San Pedro maitia/kendudazu goixeko ajia,* hain zuzen ere.

Pegatinekin juergan jolaserako giroa piztuko dute, eta horien egi-leek 50 euro jasoko dituzte.

Dorleta auzoaren gainean azalpenak ematen dabilta

I.B.


Bihar, zapatua, izango da Dorleta auzoa berrantolatze proiektuaren gaineko erakusketa ikusteko azkeneko eguna. Horrez gain, astelehenean, Juan Carlos Bengoa alkateak, Hirigintzako zinegotzi Josu Ezkurdiak eta enpresako arduradun batek lanen gaineko berbaldia egingo dute.

Abian da Dorleta auzoa eraberritze proiektuaren gaineko prozedura. Dagoeneko erakusgai izan da proiektua kultura etxean, eta bihar, zapatua, da hori ikusteko azkeneko eguna. Hala ere, astelehenean, hilaren 13an, Dorleta auzoan egin beharreko lanak azaltzeko berbaldia egingo dute. Juan Carlos Bengoa alkateak, Hirigintzako zinegotzi Josu Ezkurdiak eta Inge-

lar enpresako ordezkariek batek egingo dute. Kultura etxean izango da, 18:00etan. Gura duten herritar guztiek iradokizunak egin ahal izango dituzte.

Behin azalpenak eginda eta iradokizunak jasota, Hirigintza batzordeak aldaketak egingo ditu, eta hileko osoko bilkuran onartu beharko dute proiektua. Hortik aurrera, alegazio epea zabalduko dute.

Dorletako eraberritze lanak egiteko, Izartu programaren dirulaguntzak jasoko dituzte. Lau fase-tan banatu dituzte egin beharreko lanak: lehenengoan -dagoeneko egin dute-, aparkalekuak jarri gura zituzten; bigarrean, etxe bitarteko urbanizazio lanak; hirugarrenean, Aranburuzabala aldeko zubia eta pasagunea berritzea; eta azkenengoan, HUHEZI ondo errepeidea berrantolatzea.




AMAGOIA LASAGABASTER

Astelehenean, Udaleko eta enpresako ordezkariek berbaldia egingo dute.

LENIZ, C.B. KONPONKETAK



TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA



Aingeru ibiltokia z/g. • Tel.: 943 71 50 61 • Eskoriatza

AZKOAGA

ESTANKOA

943 71 48 77

Zure Zerbitzura



bedardenda

Tel.: 943 71 43 27
ESKORIATZA



DORLETA

Aranburuzabala 22, behea
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 51 20



**MIRENTXU
TABERNA**

Kafe goxoa hartzeko
Tel.: 943 71 41 67

**ENRIKE
MAZMELA
BOLINAGA**

HORTZ
KLINIKA



Eduardo Gorosari 3-1. esk.
Tel.: 943 71 47 36
Eskoriatza

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2005eko ekainaren 10a / 154. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otorora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Esan zuten aurkeztu dutela babes ofizialeko etxebizitzaren aurreproiektua

UBANE MADERA


Mertxe Mondragon alkatea eta Hirigintza Saileko buru Roberto Aginagalde zinegotzia GOITBn izan ziren martitzenean, Debarri saioan. Herriko errepideak, kultura etxea, kiroldegia eta etxebizitza berriak izan zituzten berbagai, besteak beste.

Mertxe Mondragonek nabarmendu zuen errepideekin buruhauste handia dutela: "Diputazioaren errepideekin ez, gure errepideekin dugu buruhaustea. Oso inbertsio handiak egin behar ditugu, oso egoera txarrean daude-eta". Halaber, alkateak azaldu zuen Aramaiok duen arazorik handiena dela herri oso handia dela azaleran eta auzoak oso sakabanatuta daudela: "Arabako beste herri batzuekin dugun desabantaila da auzoek ez dutela entitate juridikorik. Eta Araban, Aramaiokoak bano txikiagoak diren auzo batzuk entitate juridikoak dira, kontzejuak; eta kontzejuak izan ditzakete diru-sarrerak eta obrak-eta egitea eska dezakete. Aramaion, berriz, auzoren baten obraren bat egin behar bada, Udalaren bitartez egin behar da". Horren harira, Mertxe Mondragonek esan zuen euren nahia litzatekeela edo auzoak kontzeju izatea edo Aramaiok beste kontsiderazio mota bat izatea.

Bestalde, errepideekin lotuta, alkateak esan zuen Zabola eta Untzilla artekoa dagoela okerren eta hura konpontzeko laguntza eskatu ziotela iaz Diputazioari, baina hark ez zuela erantzun. Halaber, jakinarazi zuen aurten berriro eskatu dutela, erantzunaren zain daudela, eta Diputazioak baietz esaten duen momentuan hasiko direla bidea konpontzen.

KULTURA ETXETIKO ITOGINAK

Horrekin batera, kultura etxeko itoginen gainean ere galdetu zioten alkateari. Hark azaldu zuen badabiltzala harremanetan kultura etxea berri zuten enpresarekin eta epe jakin bat ezarri dionela: "Orain arte partxeak ipintzen ibili gara eta alde guztietako irtenbideak aurkitu nahian. Uste dut



MIKEL SAIZ

Hirigintzako buru Roberto Aginagalde, Debarri saiko aurkezle Alberto Gorritiberea eta Mertxe Mondragon alkatea, GOITBn.

obrako arazo bat dela, eta enpresari epe txiki bat ipini diogu. Hura bukatutakoan, auzitegira edo nonbaitera jo beharko dugu".

KIROLDEGIAN, KONPONKETAK

Bestalde, kiroldegiko konponketen gainean, alkateak zera jakinarazi zuen: "Aurten aurrekontuan sartu dugu eta hasiko dira konpon-

Uda baino lehen konponketak egingo dituzte kiroldegian: kristalak, dutxak eta ateak

ketak. Lehenengo kristal batzuk konponduko ditugu eta ateak aldatu. Dutzak ere konponduko ditugu". Lanak hastear daudela gaineratu zuen, "uda baino lehen".

BABES OFIZIALEKO ETXEAK ETA BESTE

Era berean, babes ofizialeko etxebizitzaren gaineko berritasunen gainean berba egin zuen Roberto Agi-

nagalde Debarri saioan: "Urbanizazio proiektua bukatzen dabil-tza, gero etxebizitzaren proiektua aurkeztu beharko dute eta Udalak hura ikusi eta onartu bezain laster hasi egingo dira". Halaber, enpresa eraikitzaileak etxebizitza haien gaineko aurreproiektua dagoeneko aurkeztu duela ere jakinarazi zuen.

Eta bestelako etxebizitzaren gainean, besteak beste, Miguel Angel Burgi eraikitzaileak jakinarazi zuen saihebidetaren eta Iturrios terren ostean, laster hasiko zirela etxebizitza berriak eraikitzeko lanak egingo direla. Elkarki atxikitako 12 etxe egingo dituzte.

IGERILEKUA ETA FUTBOL ZELAIA

Bukatzeko, herritarren galderen tartean, Kurtzetatik Marinerako errepidea konpontzeko asmorik baduten galderari erantzunez, alkateak argitu zuen ez dagoela euren asmoen artean errepide hori zolatzea; ez oraindik, behintzat.

Igerilekuaren gainean, berriz, esan zuen gurako zukeela baietz esatea, baina Aramaiok beste behar batzuk dituela. Belarrezko futbol zelaia egiteko eskaera ere iritsi zitzaion alkateari, eta kasu horretan, erantzuna baikorragoa izan zen: "Bada aukera bat: etxebizitzak egin behar ditugu eta haien ematen duten zesoarekin futbol-zelaia-edo egin daiteke".

ALBINAKO URTEGIA

Eta bestelako gaien artean, Mertxe Mondragonek jakinarazi zuen Albinako urtegiaren etorkizuna aztertzen dabilzala azkenaldian: "Pentsatzen dut eztabaida handia sortu beharko dela jakiteko zer nahi dugun Albina izatea. Dena dela, momentuan premiazkoa da zerbait egitea udan errepide bazterrean pilotzen diren auto-modorekin".

Are gehiago, alkateak iragarri zuen Diputazioak aurkeztu duela Albinarako proiektu bat: "Garaion egin duten moduan, urtegia pista batekin inguratu eta hesia ipini animaliak ez daitezuten uretara sartu. Dena dela, Aramaioko biztanleek erabaki beharko dugu zer nahi dugun: Albina orain arte moduko izatea edo aldatzea".

Emandako datu esanguratsuenak:

Herriko errepideen gaineko egoeraren jakitun da Udala, baina inbertsio handia behar dute haien konpontzeko. Zabola eta Untzilla artekoa konpontzeko dirulaguntza eskatu diote Diputazioari.

Kultura etxeko itoginei dagokienez, eraikina berri zuten enpresak konpondu beharko ditu. Epe jakina ezarri diote, zerbait egiteko.

Kiroldegiko konponketak hastear daude: kristalak eta dutxak konpondu eta ateak aldatuko dituzte, besteak beste.

Babes ofizialeko etxeen gainean, berriz, jakinarazi zuten aurreproiektua aurkeztu dutela Udalean.

Bestalde, alkateak berretsi zuen ez dutela igerilekua egiteko dirurik, baina futbol-zelaia egiteko aukera izango dutela.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zubiako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute.

Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23.

OHARRAK

AEROBIKEKO IRAKASLEA

Aerobik eskolak emateko irakasle bila dabil Itur-Zuri Emakume Elkarteak. Irailera behar dute, orain arteko irakasleak, Elisa Arnaizek, utzi egin behar du-eta. Interesa duenak dei dezala 653 71 66 39 telefonora. Horren harira, joan den astean izen okerra ipini genion aerobikeko irakasleari: Elisa Arnaiz beharrean, Eli Lasaga. Barkatu eragozpenak.

ELBARRIEI LAGUNTZAK

Gogoratu datorren ekainaren 23an bukatuko dela elbarriendako dirulaguntzak eskatzeko epea.

ZERGAK ORDAINTEKO

Trakzio mekanikodun ibilgailuen gaineko zerga ordaintzeko borondatezko epea ekainaren 30ean amaituko da. Hortik aurrera, %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.

ASTELEHENEAN, LIBURUAK

Liburuak sarean zela bilatu erakutsiko dute astelehenean KZGunean. 16:00etatik 17:00etara izango da ikastaroa. Interesa duen edozein joan ahal da.



GOIATZ ARANA

Adi-adi ibili ziren umeak Azkoaga eta Barajuen auzoen gainekoak entzuten.

Ikasturte bukaera oparoa dute eskolako ikasleek

UBANE MADERA

Makina bat ekitaldi dabilta egiten San Martin Eskolakoak, ikasturteko azken hilabete honetan. Joan den barikuan, esaterako, Azkoagan eta Barajuenen izan ziren. Oraingo astean, berriz, Irunen izan dira; eta datorren astelehenean, Urkiolara irteera egingo dutela iragarri digute.

Txikienei herriko bazterrak eta auzoak ezagutzera emateko helburuarekin, urtero antolatzen ditu San Martin Eskolak joan den barikuko moduko irteerak. Lehen esandako moduan, Barajuen eta Azkoaga ezagutu zituzten 2 eta 5 urte bitarteko 50 bat haurrek; hala, auzo horietan bizi diren umeek auzoaren gaineko azalpenak eman zizkieten gelakideei. Bestelako ekimenak egiteko ere aprobetxatu zuten irte-

era: traktorean ibili eta zezenak aurrez aurre ikusteko, esaterako.

SAN ANTONIO EGUNEAN, URKIOLARA

Oraingo astean, berriz, eguaztinetik barikura arte Irungo barnetegian izan dira 9 eta 10 urte bitarteko 14 ume.

Eta datorren astean Urkiolara irteera egingo dutela iragarri digu eskolako zuzendari Paulino Ibabek. Hain zuzen ere, ekainaren 13an aterako dira 3, 4, 5 eta 6. mailako ikasleak. Guztira, 48 bat neska-mutiko: "Urteroko ekimena da. Ura dagoen nonbaitera edo mendira egiten dugu irteera, txandaka. Aurten mendira tokatzen da". San Antonio eguna delata aprobetxatuko dute Urkiolara joateko: "Oinez joango dira, Etxaguendik Leziagara, handik Anbotoko zelaira eta gero, Pol-Poletik zehar, Urkiolara".

Bi aste barru hartuko dituzte oporrak, irailera arte.

Elkarteendako laguntzak banatu ditu Udalak

UBANE MADERA

Joan den asteko osoko bilkuran landutako gaien artean, herriko kultura eta kirol taldeei urteko dirulaguntzak ematea erabaki zuten. Hala, 7.400 euro banatuko ditu Udalak 13 elkarteren artean. Orain, dirulaguntzaren %75 ordainduko zaie eta beste %25 urte bukaeran.

Honako dirulaguntzen zerrenda onartu zuen udalbatzarrak joan den eguaztenean: Oiligor Ehiza eta Arrantza Taldeari, 500 euro; Itur-Zuri Emakume Elkarteari, 900 euro; Bizente Goikoetxea Abesbatzari, 600 euro; Trikitixa Taldeari, 900 euro; Alaiak Erretiratu eta Pentsiodunen Elkarteari, 900 euro; Olaetako Briska Emakume Elkarteari, 650 euro; Barea Pilota Taldeari, 750 euro; Kurtzeta-Gain Plater Jaurtikitako taldeari, 650 euro; Sakre, Ataka eta Zona Katastrofika musika taldeei, 300 euro hirurendako;

Papargorri Gazte Aberbatzari, 400 euro eta Aramaixo Tropikalako Gazte Asanbladari, 850 euro.

Osoko bilkuran aditzera eman zuten bi talde falta direla dirulaguntzen banaketa horretan, hain justu ere, burokrazia arazoren bat izan dutelako. Orixol Mendi Elkarteak eta Lagun-Artean Dantza taldea dira bi horiek.

Esandako guztiaren gaineko eta dirulaguntzen araudi berriaren gaineko informazioa talde guztiei bidaliko zaiela esan zuten.

BESTELAKO LAGUNTZAK ETA GAIK

Horrez gainera, udalbatzarrak onartu zuen 600 euroko laguntza ematea sahararrendako. Kaleko jaietarako, San Martinetarako, berriz, 21.000 euroko aurrekontua zutela jakinarazi zuten.

Halaber, jakinarazi zuten Zabola eta Untzilla arteko errepidea konpontzeko laguntza eskatuko diotela Foru Aldundiari. Guztira, 143.139,36 euroko aurrekontua dute lanek eta guztia ordaintzeko dirua eskatuko du Udalak.

LABUR

Txirritola Euskara Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren egunean

Kultura etxeko areto nagusian egingo du Txirritola elkarteak batzarra. Honako gai zerrenda zehaztu dute: aurreko akta onartzea proposatuko diete elkarteak bazkideei; 2005erako aurreikusitako egitasmoen gaineko informazioa emango dute; balantze ekonomikoa ere egingo dute, eta bukatzeko, parte-hartzaileen ekarpenik balego, haiek landuko dituzte.

Horrekin batera, Txirritola Euskara Elkarteak bazkideei zera jakinarazi nahi die: 2005ari dagokion kuota ekaina-uztaila bitartean kobratuko dutela.



Ondo asko ibili dira Sorian, Itur-Zuri elkartearen eskutik

Oso pozik etorri dira Soriatik txangoan joan ziren 25 emakume aramaioarrak. Kontatu digute leku eta kontu mordoan ezagutu dituztela. Bestelakoan artean, Numantzia, Sorian, San Saturioko ermitan, Duero ibaia ikusten eta Laguna Negran izan zirela esan digute. Azken leku horretan, gainera, bertako batek gidatu zituen bisitan. Vinuesan egin zuten gaua eta Aramaiorako bueltan, Santo Domingo de Silos ezagutzeko aprobetxatu zuten. Utzi diguten argazkian Vinuesan daude emakume aramaioarrak. / U.M.

Urratik

LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2005eko ekainaren 10a / 10. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Xabier Urtzelai • Otolara Lizentziaduna 31 ARRASATE 20500 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: xurzelai@goiena.com • Lege gordailua: SS483/05

PEDRO MARI SASIAIN/ZIZA-ZALEA

“Aurtengoa ez da zizak batzeko urte ona izan, anaiak eta biok hamabi kilo jasoko genituen”

XABIER URTZELAI

Aretxabaletan bizi bada ere, gatzagarra da Pedro Mari, Olaun baserrikoa. Badira 12 urte zizak batzen hasi zela, eta ordutik hona makina bat lekutan izan da. Aurtengoa ez da urte ona izan, izotza, euri gutxi, eta orain, bero larregi.

Zelan hasi zinen zizak batzen?

Orain dela urte batzuk ehizan egiten genuen asko, oilagorretan... Eta, askotan gertatzen zitzaigun, basora joan, eta ehunka onddo aurkitu. Nik kasurik ere ez nien egiten, baina denborekin ikasi egiten da, eta oilagorretan bai, baina badaezpada ere, onddoak batzeko poltsa eramaten hasi nintzen. Hala, oilagorretan bakarrik joaten ginean esku hutsik itzultzen ginen etxera, baina onddoak jasotzen hasi ginenean...

Udaberrian bai, baina noiz hasten da ziza denbora?

Lekuaren arabera, batzuetan lehenago hazten dira, eta beste batzuetan geroago. Ni martxoan joan nintzen lehenengoz zizak batzera, eta adibidez, Ordizia aldean zizak hazten direnerako, nik Burgos aldetik hamar kilo ekarri izan ditut.



XABIER URTZELAI

Urtean zehar zenbat ziza ekartzen dituzue?

Aurten gutxi, anaiaren eta bion artean hamabi kilo inguru batuko genituen. Oraindik badut

joateko asmoa, baina dagoeneko Pirinio aldera egin behar da, bi mila metro ingurura.

Kilo horiek guztiak hemen jasotzea gaitza izango da ba!

Araba aldean, Burgos aldean, Nafarroa aldean, Errioxan... Hortxe inguruan ibiltzen gara. Gatzaga aldean, Landan, eta egoten dira ziza-lekuak. Guk baserri

ondoan genituen zizak, baina anaiak lan batzuk egin zituen bertan eta galdu egin ziren. Dena dela, beti ez dira leku berean irriten.

Eta jasotakoarekin, zer?

Garbitu, txikitu eta hozkailuan gorde. Lagunei opari egiteko, afariak egiteko... Behin, piloa hartu eta jatetxe bateko lagunari saldu nizkion, baina ez daukat horretarako ohiturarik.

Errioxa edo Burgos aldeko zizak, baina, ez dira hemengoak modukoak.

Lurraren arabera da hori. Lur beltzaren eta gorriaren artean alde handia dago. Lur gorriko zizak gogorragoak dira, eta beltzekoak bigunagoak. Gero, euri asko bota badu, usaintsuagoa izango dira. Nik, baina, ekarri izan ditut Burgos aldetik zizak, eta jendeak esan horiek ez direla hangoak. Ziza-leku bereziak topatu izan ditut, guk esaten dugun moduan, *generosak*.

Zer behar du ziza lekuak?

Ez da erraza esaten, batzuetan badirudi leku konkreturen batean derrigor egon behar dutela, eta ezer ere ez. Eta gutxien espetakoan, mutur aurrean ziza leku ederra. Ganaduaren gorabehera ere bada: zaldia dagoen lekuan ez dago zizarik; behiak badaude, ordea, bai.

Izaro uharteari itzulia emanda etorri dira GURELeakoak

X.U.

Egubakoitzean aurreratu bezala, Bermeon igaro dute GURELeakoak asteburua, eta hara eta hona ibili dira, gainera. Taldeko kideek esandako moduan, mendi artean bizi direnak, hondartzan, gusura.

Egubakoitz arratsaldean joan ziren GURELeakoak Bermeo aldean, eta herritik kilometro gutxi-

ra dagoen aterpetxe baten igaro zuten asteburua. Bertara iritsi eta berehala jarri ziren martxan; gauean, linternak hartu eta Matxixako lurmuturrera joan ziren, sei kilometro inguruko ibilaldia eginda. Zapatuan Gatzelugatzen izan ziren, eta Bermeon bazkaldu eta gero, itsasontzi txiki bat hartu eta Izaro uharteari itzulia eman zioten. GURELeako en esanetan, seguruenik hori izan zen asteburuko ekintza bereziena. Beste batzuk ez dira konfor-

me egongo, Gernikara joan zirenean Enduroko motor txapelketarekin egin zuten-eta topo, eta gazteek ederki gozatu zuten.

DOMEKAN, HONDARTZAN

Zapatuan gora eta behera ibili eta gero, domekan lasai egon ziren hondartzan. Santimamiñeko koba inguruetara ere hurbildu ziren, baina itxita zeuden. Erretratatu batzuk atera, eta Leintz Gatzagarako bidea hartu zuten, asteburu ederra atzean utzita.



Atsedetik gabeko asteburua izanda, batek baino gehiagok astelehen galanta izan zuten.

Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida

hemen bada
giro!



Matikua jatetxea

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

H A I Z E A



Kafetegia
eta
taberna

Mitarte z/g • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 60

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

IOSU
harategia
taberna



- Urdaitegia-gozotegia
- Kroasantegia
- Gertatutako janariak

Mitarte1 • Tel.: 943 77 03 08

AKEITA
Taberna

Pintxoak eta ogitartekoak

Santa Ana 23
Tel.: 943 71 50 94
ESKORIATZA

ZARAIA
taberna

Goizeko 06:00etik irekita
Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 88 95

IBARRA JATETXEA

- menua
- karta
- plater konbinatuak
- bokatak



Araba ibilbidea 29 • TEL.: 943 79 18 03

HIRUSTA JATETXEA



Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57

Mitartegarai

Baseri turismoa
eta taberna



Areantza auzoa, Aretxabaleta
943 79 17 51

Taberna Berri



Durana 26, ARETXABALETA. 943 79 20 67

TABERNA
ARLUTZ

Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi, 8
ARETXABALETA
Tel. 943 79 94 15

ORLY

Herriko plaza
943 79 09 33
ARETXABALETA

Txalaparta taberna



Aranburuzabala 25 ESKORIATZA

Aretz

Markole 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

- Plater konbinatuak
- Ogitartekoak
- Hanburgesak
- Pizzak
- Oilaskoak eta
- paellak eramateko



Itsas bidaiain goaz, zereñ zain zaude?

% 7 Desk.

Erreserba ekainaren 20a baino lehenago

+

% 10 Desk.

Erainoko Desk.
Iberojet Cruceros-en aurrez erreserba egitearren



GRAND LATINO Itsas bidaiain

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	479€	600€	609€
Kanpoaldea	724€	860€	860€

VALENTZIA, VILLEFRANCHE (Monako),
LIVORNO (Florentzia),
CIVITAVECCHIA (Erroma),
NAPOLI, TUNISIA,
VALENTZIA.

GRAND MISTRAL Itsas bidaiain

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	576€	721€	762€
Kanpoaldea	870€	1.031€	1.074€

BARTZELONA, LIVORNO (Florentzia),
CIVITAVECCHIA (Erroma),
NAPOLI, TUNISIA, MALTA,
BARTZELONA.

16 urtera arteko
**UMEAK
DOAN**

GRAND VOYAGER Itsas bidaiain

MANTENU OSOA	EK.	UZT.	ABUZ.
Barrualdea	771€	872€	1.039€
Kanpoaldea	994€	1.127€	1.349€

VENEZIA, DUBROVNIK, CORFU,
HERAKLION, RODAS,
HEGAZKINA BARNE
nora/nondik Madril
edo Bartzelona
**ISTANBUL, ATENAS
EDO ALDERANTZIZ.**



%7ko deskontua erreserba ekainaren 20a baino lehenago egitearren; iragartzen diren prezioek deskontua barne dute. %10eko deskontua gehitzeko aukera 120 egun edo gehiagoko aurrerapenarekin (deskontu hau ez dago barne) Iberojet Cruceros-en erostegatik. Prezioak pertsonako, logela bikoitzean, pentsio osoko erregimenean, irteera konkretuentzat bakarrik. Zatoz gure agentzietara eta galdetu beste irteera batzuez eta promozioaren baldintzez. Karburantearen igoera, tasak, eskupekoak, bisa eta gestio datuak ez daude barne. Prezio zuzenak, tipografiako akatsik egon ezean. ESERLEKU MUGATUAK

ZURE OPORRENGATIK EGIN DEZAKEGUN GUZTIA EGIN EGITEN DUGU.

VIAJES IBERIA

902 108 108

PREZIOA BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO

viajesiberia.com